



## **LASARTE-ORIAKO UDALAREN** **ARAUDI ORGANIKOA**

### **ATARIKO TITULUA.**

#### **1. artikulua.- Egoitza.**

Lasarte-Oriako Udalerriak Lasarte-Orian du egoitza nagusia eta bertan kokatua dago Udaletxea.

#### **2. artikulua.- Hizkuntza ofizialak.**

1.- Euskara, Euskadiko berezko hizkuntza, eta Gaztelania izango dira Lasarte-Oriako udalerrian hizkuntza ofizialak.

2.- Udalaren Gobernu Organoek hizkuntza horiek erabiltzeko eskubidea gauzatu ahal izatea bermatuko dute, eta beharrezkoak diren neurri eta baliabideak hartuko dituzte hainbat lege eraginkortasunez bete daitezzen, hala nola, Euskararen Erabilera Arautzeko azaroaren 24ko 10/1982 Eusko Legebiltzarraren Legea, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena, eta halaber, Lasarte-Oriako Udalean indarrean dagoen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana, Lasarte-Oriako Udalean eta Udalerrian Euskararen Erabilera Normalizatzeko araei buruzko Udal-Ordenantza eta horiek garatzen dituzten gainerako xedapenak.

#### **3. artikulua.- Ahalmenak.**

1.- Lasarte-Oriako Udalak autonomiaz kudeatzen ditu Udalerriaren interesak, eta xede horretarako, lurralde izaerako Herri Administrazio gisa legeak aitortzen dizkion ahalmen, presuntzio eta eskumenak erabili ahal izango ditu.

2.- Ahalmen, presuntzio eta eskumen horiek honako hauek dira:

- a) Arauak egiteko eta bere egitura antolatzeke ahalmenak.
- b) Zerga eta finantza arloko ahalmenak.
- c) Programatzeko edo planifikatzeko ahalmena.
- d) Desjabetzeak egiteko eta mugak finkatzeko ahalmenak, baita bere ondasunak ofizioz berreskuratzeke ere.
- e) Bere ekintzak zuzenbidearen arabekoak eta bete beharrekoak direla jotzeko presuntzioa.
- f) Nahitaez betearazteke eta zigortzeko ahalmenak.



- g) Bere egintzak eta akordioak ofizioz berrikusteko ahalmena.
- h) Bere ondasunen eta eskubideen enbargaiezintasuna legeetan aurreikusitako baldintzetan; Ogasun Publikoari bere kredituetarako aitortutako lehentasunak eta gainerako eskumenak, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko Ogasunei dagozkienak baztertu gabe.
- i) Legez dagokion beste edozein.

## **I. TITULUA. UDALBATZA.**

### **I. KAPITULUA. UDALBATZAREN OSAERA.**

#### **4. artikulua.- Osaera.**

Udalerriaren gobernua eta administrazioa Udalari dagozkio, eta 17 zinegotzik osatzen dute, Hauteskunde Araubide Orokorra ezartzen duen ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren III. Tituluak xedatutakoarekin bat etorritik aukeratuak.

#### **5. artikulua.- Hutsik dauden karguak betetzea.**

1.- Zinegotzi bat hiltzen bada, ezgaitasuna sortzen bazaio edo uko egiten badio, dagokion zerrenda bereko hautagaiari edo, hala suertatuz gero, ordekoari emango zaio haren lekua, zerrenda horretan duen hurrenkerari jarraiki

2.- Aurreko prozedura horrekin bat etorritik, izendatu daitekeen beste hautagairik edo ordekoarik geratzen ez bada, hautaezintasun-arrazoirik ez duen adin nagusiko edozein herritarrek bete ahal izango du hutsik dagoen kargu hori. Zinegotziak ordezkatu behar dituen alderdi, koalizio, federazio edo hautesle-elkarteak berak izendatuko ditu ordekoak, eta dagokion Hauteskunde Batzordeari jakinaraziko zaio, dagokion egiaztatzea egin dezan. Kasu honetan, zerrenda horretako hautagai edo ordeko izan arren, aurrez kargu horri uko egin dioten pertsonak ezingo dira izendatu.

## **II. KAPITULUA. UDALBATZAKO KIDEEN AGINTALDIA.**

#### **6. artikulua.- Iraupena.**

1.- Udalbatzako kideen agintaldia lau urtekoa izango da haiek hautatu ziren egunetik kontatzen hasita.

2.- Agintaldi hori amaitu ondoren, Udalbatzako kideek, dena den, beren eginkizunetan jarraituko dute, baina ohiko administrazio-lanen ondorioetarako bakarrik, horien



ondorengoak karguaz jabetzen diren arte. Ezingo dute inolaz ere akordiorik hartu, horretarako gehiengo kualifikatua eskatzen bada.

### **III. KAPITULUA. UDALBATZA ERATZEA ETA ALKATEA HAUTATZEA.**

#### **1. atala. Udalbatza eratzea.**

##### **7. artikulua.- Deialdia.**

1.- Udalbatza batzar publiko batean eratuko da hauteskundeak egin eta ondorengo hogeigarren egunean, baldin eta ez bada hautatutako zinegotziak izendatzearen aurka hauteskunde-auzietako errekurtsorik aurkezten, eta hala gertatuz gero, hauteskundeak egin eta ondorengo berrogeigarren egunean eratuko da.

2.- Bilkuraren ordua hautatutako zinegotzien gehiengo absolutuak proposatuko du idatziz.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik inolako proposamenik egiten ez bada, bilkura hori 10:00etan egingo da.

3.- Alkateak, gutxienez bi eguneko aurrerapenez, gonbidapen bat bidaliko die hautatutako zinegotzi guztiei, udalbatza eratzeke ekitaldi horretara joan daitezten, eta bilkura hori egingo den eguna eta ordua adieraziko ditu, artikulua honetako aurreko puntuetan jasotakoarekin bat etorritik.

4.- Alkateak gonbidapen hori bidaltzen ez badu, edo bidali arren ez bada aurreko puntuetan ezarritakora egokitzen, Udaleko Idazkari Nagusiari egokituko zaio hautatutako zinegotzietan bilkura egingo den eguna eta ordua jakinaraztea, 1. eta 2. puntuetan jasotakoarekin bat etorritik.

##### **8. artikulua.- Egiteko lekua.**

Udalbatza eratzeke bilkura Udaletxeko Batzar Aretoan egingo da.

Hori hala izanik ere, hiru hautagai-zerrenda desberdinetako zinegotzi hautetsiek, hautetsien gehiengo absolutua izanik, eskaera idatzi bat aurkezten badute, batzar hori edukiera handiagoko udal-titulartasuneko beste areto batean egin ahalko da, ekitaldiari ospe handiagoa eta herritarrei erosotasun handiagoa ematearren.



## **9. artikulua.- Ekitaldiari hasiera ematea.**

1.- Ezarritako orduan, Udaleko Idazkari Nagusiak lege-aginduz iragarriko du Udalbatza eratuko dela eta zinegotzi hautetsiei esertzeko gonbidapena luzatuko die, alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteen arabera taldekaturik aurrez izendatu zaizkien eserlekuetan.

2.- Zinegotzietako batek ez baditu karguaz jabetzeko ekitaldiaren aurreko betebeharrak egoki bete, zin-egitea edo promesa salbuetsiz, horren berri eman beharko du.

## **10. artikulua.- Adin Mahaia.**

Legez aurreikusitako ondorioei begira, Adin Mahai bat eratuko da, ekitaldi horretan bertan dauden adin handieneko eta txikieneko hautetsiek osatua. Adin handieneko Mahaiko kideak beteko ditu bertako Lehendakariaren lanak. Mahaiko kideen artean eztabaidaren bat sortzen baldin bada, Lehendakariak bere botoaz erabakiko ditu gerta daitezkeen berdinketak, erabakiak hartzeari begira.

Idazkari-lanak, berriz, Udalbatzako Idazkariak berak egingo ditu.

## **11. artikulua.- Udalbatza eratzea.**

1.- Karguaz jabetu aurretik, zinegotzi hautetsietako bakoitzak araudi honetako 19. artikuluan zerrendatuta datozen betebeharrak bete beharko ditu.

2.- Mahaiak egiaztatu egingo ditu aurkeztutako egiaztagiria edo hautetsien nortasunaren ziurtagiriak, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udalari bidali dizkion ziurtagirietan oinarrituta.

3.- Zinegotziaren izaera erdiesteko, legean ezarritako beste betebeharrak batzuk betetzeaz gain, beharrezkoa izango da dagokion zina edo promesa egitea. Zina edo promesa Adin Mahaiko kideen aurrean egingo da. Xede horri begira, Idazkariak zin-egite edo promesaren formula irakurriko du, eta, jarraian, hautetsiei dei egingo die, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak egindako izendapen-aktan zerrendatuta datozen hurrenkerari jarraiki. Hautetsiak Adin Mahaiaren aurrean aurkeztuko dira eta legez onartutako edozein modutan egin beharko dute zina edo promesa.

4.- Zinegotziak bere izaera erdietsi ondoren, Adin Mahaiak Udalaren domina ezarriko dio Udalerriaren armariarekin. Kargu hori aldeztu aurretik bete izanagatik bereizgarri hori duten zinegotzietan ez zaie horrelakorik emango.



5.- Aurreko eragiketa horiek egin ondoren, Udalbatza eratuta dagoela joko da baldin eta hori eratzeko batzarrean bertako kideen gehiengoak zinegotziaren izaera erdiesten bada; horrela gertatzen ez bada, Udala ezin izango da eratu eta Adin Mahaiak amaitutzat joko du ekitaldi hori, eta zinegotziak automatikoki batzar berri baterako deituak izango dira, bi egun geroago, ordu eta toki berean. Bigarren batzar horretan, Udalbatza eratuta geratuko da, bertan dagoen zinegotzi kopurua edozein izanik ere.

## **12. artikulua.- Udalbatza eratu edo desegin ezina.**

1.- Ezinezkoa balitz Udalbatza eratzeari edo desegingorik balitz Ministroen Kontseiluak hala erabaki duelako, toki-araubideari buruzko oinarriko legerian aurreikusitakoarekin bat etorritik interes orokorrei kalte larriak egiten dizkien eta konstituzio-obligazioak ez betetzea eragiten duen kudeaketatik, udalbatza berria eratu bitartean, edo, hala egokitzuz gero, desegindakoaren agintaldia amaitzen denean, haren gaien administrazio arrunta Foru Aldundiak izendatutako kudeaketa-batzorde baten ardura izango da; batzorde horretako kide kopurua ez da izango Udalbatzako legezko kide kopurua baino handiagoa. Batzordeko kide guztien artetik boto-gehiengoz hautatutako bokalak egingo ditu Alkatearen edo Lehendakariaren lanak.

2.- Udalbatzako gobernu-organismoek Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 61.2 artikuluan aurreikusitako jardueraren bat egin dutelako desegiten denean, Foru Aldundiak zuzenean bere gain hartuko du, hura desegin ondoren, udalbatzaren ohiko kudeaketaren ardura, dagokion agintaldia amaitzen den bitartean, baina ezin izango du gehiengo kualifikatu bat edukitzea eskatzen duen inolako erabakirik hartu.

3.- Dagokion hauteskunde-deialdian hautatutako egitatezko kideen kopurua udalbatzako legezko kide kopuruaren erdia baino txikiagoa izango balitz, jarraitzen duten udalbatzako kide guztiek eta karguak betetzeko izendatuak izan diren herritarrek osatutako kudeaketa-batzorde bat eratuko da, lehen paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Alkateak jarraituko du Kudeaketa Batzorde gisa eratutako Udalbatza horretako buru izaten, eta bere eginkizun guzti-guztiak mantenduko ditu.

Alkatearen kargua hutsik badago, Kudeaketa Batzordearen Udalbatza osatzen duten guztien artetik boto kopururik handiena lortzen duen zinegotzi edo bokal kudeatzailea hautatuko dute Lehendakari, boto kopurua edozein izanik ere. Kudeaketa-Batzorde horretako lehendakariaren kargu batzuk hutsik geratuko balira, ondoz ondoko aukeraketak egingo lituzkete modu berean..

Kudeaketa Batzordea eratzeari ezinezkoa baldin bada, Foru Aldundiak zuzenean bere gain hartuko du Toki Erakunde horren ohiko kudeaketa, baina ezin izango du gehiengo



kualifikatu bat edukitzea eskatzen duen inolako erabakirik hartu.

## **2. atala. Alkatearen aukeraketa.**

### **13. artikulua.- Hautagaitzak.**

Udalbatza eratzeko batzar horretan bertan, eta hura eratu ondoren, Alkatea aukeratzeari ekingo zaio.

Beren hautagai-zerrendako buru diren zinegotzi guztiak izango dira hautagai, hautagai-zerrendak hautagaia aurkezteari uko egin ezean. Uko hori alde aurretik egin ahal izango da, idatzi bat aurkeztuz, edo bestela, Mahaiko Lehendakariak hautagaiei galdetzen dienean ea Alkatetzarako hautagaitzari eusten dioten.

Zerrendaburuak ez baldin badu hautagai izan nahi, berariaz egin beharko dio uko, eta Alkatetzarako hautagai izango da zerrendan haren atzetik datorrena; uko-egilea zerrenda horretako azken lekura igaroko da, eta horrela jokatu da hurrenez hurren, hala egokituz gero, hautagaitza horretako gainerako kideekin.

Kasu honetan ezin daitezke hautagai izan hauteskundeetara aurkeztutako hautagai-zerrendetan sartuta egon gabe zinegotzi karguaz jabetu direnak.

### **14. artikulua.- Bozketa.**

1.- Bozketa ezkutukoa izango da, eta horri begira, Idazkariak dagokion hautetsontzia eta bozketarako boto-txartelak ekarriko ditu. Hautagaitza bakoitzeko, zinegotzi hautetsi adina boto-txartel banatuko dira, eta gainera, boto zurien kopuru berbera ere banatuko da.

2.- Botoak baliozkoak, baliogabeak edo zuriak direla kalifikatzearen, hauteskunde-prozesuetarako oro har xedatutakoari men egingo zaio.

3.- Bakoitzak berari dagokion botoa eman ahal izan dezan, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak egindako izendapen-aktan zerrendatuta dauden hurrenkeraren arabera deituko die zinegotziei Idazkari jaunak, Adin Mahaiko kideei izan ezik, zeren eta, hauek botoa eman nahi baldin badute, azkenak izango baitira, eta Lehendakariak itxiko du azkenik bozketa.

Boto-emaileak berak sartuko du boto-txartela hautetsontziaren barruan.

4.- Zinegotziek bozkatzeari uko egin diezaiokete. Zinegotzi bat abstenitu egin dela ulertuko da, baldin eta, bertan egon eta bi aldiz jarraian botoa ematera deitu ondoren, botoa hautetsontzian sartzeraz joaten ez bada. Halaber, abstenitu egin dela joko da baldin eta,



bozketa hasi ondoren, aretotik alde egiten badu eta botoa ematea egokitzen zaion garairako itzultzen ez bada.

### **15. artikulua.- Boto-kontaketa.**

1.- Bozketa amaitu ondoren, boto-kontaketari ekingo zaio. Lehendakariak, hautetsontzia zabaldu ondoren, boto-txartelak banan-banan aterako ditu, ozenki irakurriko ditu, eta Adin Mahaiko beste kideari eta hala eskatzen duten gainerako zinegotzi guztiei erakutsiko dizkie. Jarraian, Idazkariari emango dizkio boto-txartelak.

2.- Eragiketa hori amaitu ondoren, Idazkariak botoak zenbatzeari egingo dio, eta ozenki irakurriko du horren emaitza.

3.- Emaitza ezagutu ondoren, eta Alkatea izendatu aurretik, zenbatutako boto-txartelak aztertu daitezela eskatu ahal izango du edozein zinegotzik; kasu honetan, Idazkari jaunak, Adin Mahaiko kideen aurrean, zenbatutako boto-txartelak erakutsiko dizkio. Aztertu ondoren, Adin Mahaiak egiaztatzen baldin badu Idazkari jaunak adierazitako emaitza horretan akatsen bat gertatu dela, gehiago berandutu aurretik, hori zuzentzeari ekingo zaio.

### **16. artikulua.- Alkatea izendatzea.**

1.- Hautagaietako batek Udalari dagokion zinegotzi kopuruaren gehiengo absolutua adierazten duen boto kopurua jasotzen badu bere alde, Alkate hautetsi izendatuko dute.

2.- Horietatik inork ere ez badu gehiengo absolutua lortzen, herritarren boto kopururik handiena erdietsi duen zerrendako Alkatetzarako hautagaia izendatuko dute Alkate. Berdinketa gertatuz gero, zozketa bidez erabakiko da.

### **17. artikulua.- Kargua onartzea eta zin egitea.**

1.- Zinegotzi kargua eskuratzeko legezko betebeharrak bete behar izateaz gain, izendatutako hautagaiak onartu egin beharko du kargua, eta, bide batez, dagokion zina edo promesa egin beharko du. Zina edo promesa egin ahal izateko, zinegotziaren karguaz jabetzeko xedatutakoari men egingo zaio.

2.- Alkate izendatutako pertsona bertan baldin badago, zina edo promesa hartzeari ekingo zaio.

3.- Eraketa-bilkuran ez baldin badago, Lehendakariak, beste izapiderik gabe, Lehendakariak amaitutzat joko du ekitaldi hori.



4.- Adin Mahaiko Lehendakariak behin-behinekoz beteko du Udaleko Lehendakariaren kargua, baina ez du edukiko izapide hutsak egiteaz gain beste inolako eskumenik. Bere ardura izango da hautatutako Alkatea non dagoen jakitea eta eskatzea hiru laneguneko epearen barruan bere karguaz jabetzeko, Udalbatzarraren aurrean. Agindu hori onartu ondoren, horretarako bilkuraren deialdia egingo du. Bilkura horretan, berriro ere Adin Mahaia eratuko da bertan dauden zinegotzien artetik, eta Idazkari gisa Udalbatzako Idazkariak berak jardungo du.

5.- Inolako arrazoi justifikaturik gabe bere karguaz jabetzeari ekiten ez badio, Alkatetza hutsik dagoen kasuetarako hauteskunde-legerian xedatutakoari men egingo zaio, eta bien bitartean, eraturako azken Adin Mahaiko Lehendakaritza bete duenak beteko du Udaleko Lehendakaritza, izapide hutsak egiteaz gain beste inolako eskumenik eduki gabe.

6.- Zina edo promesa egin ondoren, Adin Mahaiko Lehendakariak karguaren jabetza emango dio, aginte-makila eskaintzearekin batera.

7.- Bere karguaz jabetu ondoren, Alkateak ekitaldi horretako Lehendakaritza beteko du eta bilkura hori amaiera arte gidatuko du. Edonola ere, esku-hartzeen txanda bat zabaldu beharko du, nahi duten zerrendaburuek, hauteskundeetan boto kopururik handiena erdietsi duen hautagai-zerrendatik hasi eta boto kopuru txikiena erdietsi duenera, hitzaz baliatzeko aukera izan dezaten, baina esku-hartze horiek ez dute izango bost minututik gorako iraupenik.

Esku-hartzeen txanda hori amaitu ondoren, Alkateak hitza hartu ahal izango du, baina Alkatearen esku-hartzearen iraupena ere ez da hamabost minututik gorakoa izango.

### **18. artikulua.- Alkatetza hutsik egotea.**

Alkatetza hutsik badago bertako titularrak uko egin diolako, hil egin delako edo epai irmo bat dagoelako, Alkate berria aukeratzeko ez-ohiko bilkura, Udalbatzarrak uko hori onartzen duenetik, hiltzen denetik edo epaia jakinarazten denetik –kasuen arabera– hasi eta hurrengo hamar egunen barruan egingo da, hauteskunde-legerian ezarritako baldintzekin bat etorritz.

Alkate berria aukeratzeko, kontuan hartu beharko da kapitulu honetan xedatutakoa.





## **II. TITULUA. ZINEGOTZIEN ESTATUTUA.**

### **I. KAPITULUA. ZINEGOTZIAREN IZAERA ESKURATZEA ETA GALTZEA.**

#### **19. artikulua.- Zinegotziaren izaera eskuratzea.**

Zinegotziaren izaera eskuratzeko ondorengo betebeharrak hauek bete beharko dira:

- A) Udaleko Idazkaritza Nagusiaren aurrean dagokion ziurtagiria aurkeztu.
- B) Ondorengo betebeharrak bete aurretik, ondasunen eta jardueren inguruko aitorpenak bete eta aurkeztu.
- C) Zina edo promesa egin, eraketa-bilkuran edo, Udalbatza osatu ondoren, parte hartzen duen lehen bilkuran.

#### **20. artikulua.- Zinegotziaren izaera galtzea.**

Zinegotziaren izaera galdu egingo da ondorengo arrazoiengatik:

- A) Hiltzeagatik edo erabaki judizial batek aitortutako ezgaitasuna izateagatik.
- B) Erabaki judizial irmo batek izaera hori galtzea eragiteagatik.
- C) Idatziz aurkeztutako ukoagatik, Udalbatzarrari horren berri eman ondoren.
- D) Bateriaezintasuna aitortzeagatik.
- E) Agintaldia amaitzeagatik, udalbatza berria eratu ondoren.

## **II. KAPITULUA. PRINTZIPIOAK.**

### **21. artikulua.- Printzipio etikoak.**

Udalbatzako kideek, beren eginkizunak betetzean, ondorengo printzipio etikoak bete eta horietara egokituko dute beren jarduna:

- 1.- Gai publikoen kudeaketan gardentasunez jokatuko dute, eraginkortasun, ekonomia eta eragingarritasunaren printzipioekin bat etorriz, betiere interes orokorrari mesede egiteko helburuz.
- 2.- Beren eginkizunak fede onez eta zerbitzu publikoari dedikaturik burutuko dituzte, eta uko egingo diote printzipio horien aurkako den edozein jokabideri.
- 3.- Inpartzialtasunaren printzipioa errespetatuko dute, interes partikular orotatik libre dagoen irizpide independente bat mantenduz betiere.
- 4.- Berdintasunezko eta inolako diskriminaziorik gabeko tratua bermatuko dute beren eginkizunak burutzean.
- 5.- Behar den arduraz jokatuko dute beren obligazioak betetzean, eta kalitatea sustatuko



dute zerbitzu publikoak eskaintzeko orduan.

6.- Jokabide duin bat mantenduko dute eta herritarrak zuzentasun zorrotzez tratatuko dituzte.

7.- Beren gain hartuko dute beren erabaki eta jardueren erantzukizuna eta berek zuzentzen dituzten erakundeena, legez beste batzuk ere eskatu dakizkiekeen arren.

## **22. artikulua.- Jarduera-printzipioak.**

Udalbatzako kideek, beren eginkizunak betetzean, ondorengo jarduera-printzipioak bete eta horietara egokituko dute beren jarduna:

- 1.- Beren jarduna beharrezko dedikazioarekin beteko dute, eta bateraezintasunak eta interes-gatazkek arautzen dituen araudia erabat errespetatuz.
- 2.- Beren eskumenez baliatzean edo baliatzeagatik ezagutzen dituzten gertaeren edo informazioen inguruan beharrezkoa den zuhertasuna erakutsiko dute beti.
- 3.- Organo eskudunei jakinaraziko diete ezagutzen duten edozein arauz kanpoko jarduera.
- 4.- Indarreko araudiak esleitzen dizkien botereak horiek eman zitzaizkien xederako bakarrik erabiliko dituzte, eta interes publikoa, Administrazioen ondarea edo gizarteak bere arduradun publikoen inguruan eduki behar duen irudia arriskuan jar dezakeen edozein jarduera eragotziko dute.
- 5.- Beren eginkizunekin bateraezinak diren egoera, jarduera edo interesetan ez dute parte hartuko, eta beren objektibotasunari eragin diezaiokeen auziren bat tartean egon daitekeen gaietan esku hartzeari uko egingo diote.
- 6.- Ez dute oparirik onartuko, ezta mesederik edo zerbitzurik ere baldintza onuragarrietan, baldin eta beren eginkizunen garapena baldintzatu badezakete. Erakundearentzat garrantzia handiagoa duten oparien kasuan, udal-ondarean barneratzeari ekingo zaio.
- 7.- Beren eginkizunak gardentasunez burutuko dituzte.
- 8.- Baliabide publikoak modu egokian kudeatu, babestu eta iraunaraziko dituzte, eta ezingo dira erabili aplikagarri den araudiak baimendutakoak ez diren beste jarduera batzuetarako.
- 9.- Ez dira baliatuko Administrazioan duten posizioaz abantaila pertsonalak edo materialak erdiesteko.

## **III. KAPITULUA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

### **23. artikulua.- Erregimena.**

Zinegotzien eskubideak eta betebeharrak erregimen lokaleko legerian eta araudi honetan ezarritakoak izango dira.



#### **24. artikulua.- Bertaratzeko eskubidea eta betebeharra.**

Zinegotziek Udalbatzarretara eta partaide diren kide anitzeko beste organoetara joateko eskubidea eta betebeharra dute, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidearekin, hori eragozten duen bidezko arrazoiren bat egon ezean, eta horrelakorik baldin badago, ahal duten neurrian, behar hainbateko aurrerapenaz jakinarazi beharko diote dagokion organoko lehendakariari.

#### **25. artikulua.- Ordainsariak.**

Zinegotziek beren dedikazio-erregimenari dagozkion ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75, 75 bis eta 75 ter artikuluek xedatutakoarekin bat etorritz, eta hori garatuz Udalbatzarrak xedatzen dituen ebazpenekin bat etorritz.

#### **26. artikulua.- Uko egitea eta errefusatzea.**

1.- Legeak ezarrita dituen bateraezintasun-arrazoen kaltetan izan gabe, zinegotziek uko egin beharko diote edozein gairen inguruan eztabaidatzeari, botoa emateari, erabakitzeari eta esku hartzeari baldin eta administrazio-prozeduraren eta Herri Administrazioen kontratuen inguruko legeriak aipatzen dituen arrazoietakoa batean aurkitzen badira.

2.-Abstenitzeko motiboren batean aurkitzen diren zinegotziek esku hartuz gero, baldin eta esku-hartze erabakigarria izan bada, esku hartu duten ekintza horien baliogabetasuna eragingo du.

3.- Interesatuek zinegotzi batzuk errefusatu daitezela sustatu ahal izango dute baldin eta abstenitzeko motiboren batean aurkitzen direla uste badute.

4.- Udalbatzarraren ardura izango da alkatearen eta zinegotzien aurka proposatu daitezkeen errefusatzeak ebaztea.

#### **27. artikulua.- Jokabidea.**

Zinegotziak behartuta daude beharrezko adeitasuna agertzera eta udal-organoen ordena eta funtzionamendurako arauak errespetatzera, baita sekretua gordetzera ere jardueretan eta eztabaidetan, Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluan jasotako herritarren oinarrizko eskubideari eragin diezaioketen gaietan.



## **28. artikulua.- Erantzukizuna.**

1.- Zinegotziak erantzukizun zibil eta penalaren mende daude beren kargua betetzean egiten dituzten jarduerengatik edo ez-egiteengatik. Auzitegi eskudunen aurrean eskatuko dira erantzukizunak, eta aplikagarri den prozedura arruntaren arabera izapidetuko dira.

2.- Udalaren erabakien erantzule izango dira erabaki horiek hartzearen aldeko botoa eman duten Udalbatzako kideak.

3.- Udalak bere kideen erantzukizuna eskatu ahal izango du, dolu edo erru larriagatik Udalbatzari edo hirugarrengeoi (baldin eta Udalbatzak kalte-ordaina eman badie) kalte eta galera larriak eraginez gero.

## **29. artikulua.- Zinegotziek informazioa eskuratzeko eskubidea izatea.**

1.- Zinegotzi guztiak eskubidea dute, eskuordetzen dituen alkate edo zinegotziengandik, Udalbatzaren zerbitzuen esku dauden eta beren eginkizunak garatzeko beharrezkoak dituzten aurrekari, datu edo informazio guztiak jasotzeko.

2.- Aurreko paragrafoan jasotako eskubidea erabiltzeko eskaera hura aurkeztu eta hurrengo bost lanegunen barruan ebatzi beharko da. Nolanahi ere, informatzeko dokumentazioa eskuratzeko ukatzen bada, ebazpen arrazoitu baten bidez egin beharko da, eta eskatutako informazio hori eskaintzea eragozten duten eta zuzenbidean oinarrituta dauden arrazoiak aipatu beharko dira bertan.

Epe horretan ez bada berariazko ebazpenik egiten, eskabide hori onartutzat joko da administrazioaren isiltasunagatik.

3.- Eskabidearen idazkia aurkeztu ondoren, Idazkaritza Nagusiari igorriko zaio. Hark dagokion Departamentuko Buruzagitzari eskatuko dio adierazteko, 48 orduko epearen barruan, ba ote dagoen zuzenbidean oinarritutako arrazoirik informazio hori eskuratzeko edo horren kopiak egitea eragozten duenik, edota aurreikusitako epearen barruan informazio hori eskaintzea edo kopiak egitea eragozten duen xehetasunik. Alkatetzari txosten horren berri emango zaio, dagokion ebazpena eman dezan. Adierazitako epe horretan ez bada txostenik egiten, ulertuko da ez dagoela inolako eragozpenik zinegotzi eskatzaileak informazio hori eskuratzeko eta eskatutako kopiak jasotzeko.

4.- Aurreko apartatuetan xedatutakoa hala izanik ere, administrazio-zerbitzuak behartuta egongo dira informazioa eskaintzera, zinegotziak baimenduta dagoela egiaztatu beharrik izan gabe, ondorengo kasu hauetan:



- a) Kudeaketak egiteko eskumenak edo erantzukizunak dituzten zinegotziek horiekin loturiko informazioa eskuratu nahi dutenean.
- b) Zinegotziak partaide diren kide anitzeko organoek aztertuko dituzten gaiei buruzko informazioa eta dokumentazioa eskuratu nahi dutenean, horietarako deialdia egin ondoren.
- c) Edozein udal-organok hartutako erabakiak edo ebazpenak direnean. Azken kasu honetan, espediente baten inguruan ebazpen edo erabaki bat hartu denean, zinegotziek espediente horiek eskatu ahal izango dizkiote Udaleko Idazkari Nagusiari, edo itzuli egin baldin badira, horiek izapidetzeko ardura duen administrazio-unitateari.
- d) Zinegotziek herritarrentzat eskuragarri dagoen udal-informazioa edo udal-dokumentazioa eskuratu nahi dutenean.

5.- Eskatutako informazio hori eskatzailearen esku egongo da eskaera hori berariaz edo tazituki onartzen denetik aurrera, edo informazio hori eman behar duen administrazio-zerbitzuak eskaera jasotzen duenetik aurrera, baldin eta aldez aurreko baimenik behar ez bada.

Eskabide horretan dokumentazio-kopiak egin daitezela jasotzen bada eta, horien bolumena dela eta, bitarteko mekanikoen bidez erreproduzitu beharrak kopiak emateko ardura duen unitatearen ohiko funtzionamendua oztopatu badezake, dokumentazio hori bost eguneko epe batez kontsulta-gai jarriko da. Kasu honetan, informazioa erdietsi nahi den dokumentu zehatzetara mugatuko da kopien eskaera, eta horretarako epea ez da bost lanegunetik gorakoa izango, zehaztapen hori egiten den unetik kontatzen hasita.

6.- Edonola ere, informazioa eskuratzeko eskubidea erabiltzeak ezin dezake berarekin ekarri administrazio-eraginkortasunaren printzipioari kalte egitea, eta beraz, udal-zerbitzuen lan-erregimenarekin egokiarazi beharko da. Horrexegatik, artikulua honetan aurreikusitako epeak Alkateak zabaldu ahal izango ditu, horretan zerikusia duten xehetasunak kontuan hartuta, baina idatziz eta arrazoiturik justifikatu beharko du hori.

7.- Udalbatzako kideek beren eginkizunak burutu ahal izateko eskaintzen zaizkien informazioen inguruan konfidentziasuna gordetzeko obligazioa dute, eta bereziki, oraindik hartzeko dauden erabakietarako aurrekari gisa balio izan dezaketenen inguruan, eta halaber, aztertu ahal izateko eskaintzen zaien dokumentazioaren –originala nahiz kopia– erreprodukzioa eragotzi behar dute. Konstituzioak herritarrei aitortutako eskubide eta askatasunei eragin diezaiekeen informazioaren inguruan gorde beharko dute bereziki zuhurtzia.



## **IV. KAPITULUA. BATERAEZINTASUN-ARRAZOIEI BURUZKO ETA ONDASUN, INTERES ETA JARDUEREI BURUZKO AITORPENA.**

### **1. atala. Obligazioa.**

#### **30. artikulua.- Definizioa.**

1.- Udalbatzako kide guztiek, eduki ditzaketen bateraezintasun-arrazoiei buruzko eta diru-sarrerak eskaintzen dizkien edo eskain diezazkiekeen edozein jarduerari buruzko aitorpena egin beharko dute Udaleko Idazkaritza Nagusiaren aurrean.

Era berean, beren ondare-ondasunen aitorpena eta era guztietako sozietateetan duten partaidetzarena egin beharko dute, parte hartzen duten sozietateei buruzko informazioa eta errentaren, ondarearen eta, hala egokituz gero, Sozietateen gaineko zergen likidazioari buruzko informazioa emanaz.

2.- Udalbatzarrak onetsitako eredueta egindako aitorpen horiek karguaz jabetu aurretik, kargua uztean eta agintaldia amaitzean egin beharko dira, baita egitatezko xehetasunak aldatzen direnean ere.

3.- Duten kargua dela eta, beren segurtasun pertsonala edo beren ondasun edo negozioena, beren senitartekoena, bazkideena, langileena edo berekin harreman ekonomiko edo profesional bat duten pertsona mehatxatuta eduki dezaketen udalbatzako kideek beren ondasun eta ondare-eskubideen gaineko aitorpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren dagokion erregistroan aurkeztu ahal izango dute. Kasu horretan, Lasarte-Oriako Udaleko Idazkaritza Nagusiari ziurtagiri soil eta laburra aurkeztuko diote, beren aitorpenak bete dituztela eta aurreko paragrafoak aipatzen duen Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatzen duen agiri bateanz, bertako arduradunak igorria.

4.- Interesen Erregistroen zuzendaritza eta kudeaketa Udaleko Idazkari Nagusiaren ardura izango da soil-soilik, eta hark prestatuko ditu eta eskainiko ditu Udalbatzarrak onetsitako interesen aitorpen-ereduak.

### **2. atala. Aitorpenak.**

#### **31. artikulua.- Jardueren aitorpena.**

Jardueren aitorpenak ondorengo edukia izango du:

a) Berek edo ordezkapen edo ahalordetze baten bitartez burutzen dituzten izaera publikoko nahiz pribatuko jarduera guztiak, baldin eta ordainsari bat eman badiezaiekete edo diru-



sarrera batzuk eskain badiezazkiekete, nahiz berez horrelakorik ez jaso.

- b) Herri Administrazioen aurrekontuen kontura edo horiei atxikitako edo horien mendeko erakundeen aurrekontuen kontura jasotzen den edozein ordainsari edo diru-sarrera.
- c) Jarduera pribatu batetik zuzenean edo zeharka jasotzen den beste edozein ordainsari edo diru-sarrera.
- d) Kargua betetzen den bitartean edozein jarduera publiko edo pribatu hastea edo amaitzea.

### **32. artikulua.- Ondasunen eta interesen gaineko aitortpena.**

Ondasunen eta interesen gaineko aitortpen horretan hauxe jasoko da:

- a) Bere ondasunen, eskubideen eta ondare-obligazioen zerrenda.
- b) Balio edo finantza-aktibo negoziagarriak.
- c) Aitortpen-egileak edo bere ezkontideak, ezkontza-erregimen ekonomikoa edozein izanik ere, edo antzeko afektibotasun-harreman batean harekin bizi den pertsonak eta beren mendeko seme-alabek eta tutoretzapeko pertsonak interes batzuk dituzten partaidetzazko sozietateen nahiz beste edozein eratako sozietateen partaidetzak eta helburua.
- d) Aurkeztu behar izan dituzten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren zerga-aitortpenen urteko kopiak.

### **33. artikulua.- Aurkezteko epea.**

1.- Jardueren aitortpenak eta ondasun eta interesen aitortpenak aurkeztu egin behar dira karguaz jabetu aurretik, kargua uzten denetik edo agintaldia amaitzen denetik hilabete bateko epean, edota aitortpenaren xede diren jardueretan, ondasunetan edo interesetan aldaketak gertatzen direnetik hilabete bateko epean.

2.- Zerga-aitortpenen urteko kopiak Ondasunen eta Interesen Erregistroan aurkeztuko dira Zerga Administrazioan aurkezten direnetik hilabete bateko epean.

### **3. atala. Interesen Erregistroa.**

#### **34. artikulua.- Sorrera.**

Jardueren eta ondasun eta interesen aitortpenak inskribatzeari begira, ondorengo Interesen Erregistroak sortu dira:

- a) Jardueren Erregistroa; honen helburua da egon litezkeen bateraezintasun-arrazoiei buruzko aitortpenen eta diru-sarrerak eskaintzen dituzten edo eskain ditzaketan jardueren buruzko aitortpenen gordailu izatea.
- b) Ondare Ondasunen Erregistroa; honen helburua, berriz, ondasun eta ondare-eskubideen



gaineko aitortzenen gordailu izatea da.

### **35. artikulua.- Jardueren Erregistroa.**

Jardueren Erregistroak izaera publikoa du, eta Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko indarreko araudian eta araudi honetan xedatutakoa bete beharko da bertako informazioa eskuratzeko.

Aitortzen honetan jasotako datuak udalaren webgunean argitaratuko dira, Udalbatzarrak onetsitako ereduari jarraiki. Udaleko Idazkaritza Nagusiaren ardura izango da informazio hori argitaratzea, aitortzenen gordailua egiten denetik hilabete bateko epean.

### **36. artikulua.- Ondare Ondasunen Erregistroa.**

Ondare Ondasunen Erregistroaren helburua ondasunen eta ondare-eskubideen gaineko aitortzenen gordailu izatea da.

Ondare Ondasunen Erregistroak izaera publikoa du, araudi honetan jasotako baldintzetan.

Ondasunen eta ondare-eskubideen aitortzenetako ondorengo datuak argitaratuko dira:

- a) Ondasun higiezinaren izaera, ezaugarriak, katastro-balioa eta horien gaineko partaidetza-ehunekoa.
- b) Erabiltzeko eta gozatzeko eskubide errealek deskribapena, ondasunen balioa, eskubidearen balioa eta partaidetza-ehunekoa.
- c) Aitortzenen datuaren duen tasa, balioa edo saldoa eta aurrezki-kontuetan eta beste era bateko ezarpenetan dituen gordailuen partaidetza-ehunekoa.
- d) Akzio eta partaidetzen deskribapena, balioa eta horietan duen partaidetza-ehunekoa.
- e) Beste ondasun batzuen deskribapena, balioa eta horietan duen partaidetza-ehunekoa.
- f) Interes bat duen sozietatearen identifikazioa, horren sozietate-helburua eta bertan duen partaidetza-ehunekoa.
- g) Ondare-obligazioetan, zorretan, maileguetan, kredituetan eta antzekoetan duen tasa, balio eta partaidetza-ehunekoa.

Ondasunen kokapenarekin loturiko datuak edota pertsona titularra identifikagarri egin dezaketenak ez dira, inola ere, argitaratuko.

Udaleko Idazkaritza Nagusiaren ardura izango da informazio hori argitaratzea, aitortzenen gordailua egiten denetik hilabete bateko epean.





### **III. TITULUA.- UDAL-TALDE POLITIKOAK ETA ATXIKIPENIK GABEKO ZINEGOTZIAK.**

#### **I. KAPITULUA.- UDAL-TALDE POLITIKOAK.**

##### **37. artikulua.- Udal-talde politikoak osatzeko arauak.**

1.- Zinegotziek, korporazioan jardun ahal izateko, udal-talde politikoak osatuko dituzte agintaldi bakoitzaren hasieran.

2.- Udalbatzan postuak erdietsi dituzten alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarte bakoitzeko zinegotziek beren borondatez osaturik egongo dira udal-talde politiko horiek. Kide batek bakarrik osaturik ere egon daitezke.

Hauteskunde-koalizio gisa aurkeztutako hautagai-zerrenden kasuan, horiek osatzen dituzten erakundeak udal-talde politiko bereizi modura eratu ahal izango dira legegintzaldiko edozein unetan. Kasu honetan, hautagai-zerrendan atxikita agertzen diren alderdi edo federazioak eratzen duen udal-talde politikoaren barruan elkartu beharko dute zinegotzi hautetsiek.

3.- Zinegotzi bat ezin daiteke egon aldi berean udal-talde politiko batean baino gehiagotan.

4.- Zinegotziaren izaera gerora erdiesten dutenak beren hautagai-zerrendari edo alderdiari dagokion udal-talde politikoaren barruan sartu ahalko dira.

##### **38. artikulua.- Udal-talde politikoak eratzeko prozedura.**

1.- Alkateari zuzenduko dioten eta partaide guztiek izenpetuko duten idatzi baten bitartez eratu dira udal-talde politikoak. Idatzi hori Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuko da Udalbatza eratu ondorengo bost laneguneko epearen barruan.

2.- Idatzi horretan, gutxienez, udal-talde politikoaren izena, bertako bozeramailearena eta ordeko bozeramailearena adieraziko dira. Kargu horien izendapena aldatu egin daiteke udalbatzaren agintaldian, baina Alkatetzari idatzi baten bidez jakinarazi beharko zaio, Erregistro Nagusian aurkeztuta, eta bertan, dagokion Taldearen gehiengoak hartutako erabakia agerraraziko da. Bozeramaileak, noiz edo noiz, bere udal-talde politikoko beste kide baten aldeko eskuordetzea egin ahal izango du bilkura jakin batean esku hartzeko edo gai jakin baten inguruan eztabaidatzeko, baina hori, ahal den neurrian, behar hainbateko aurrerapenaz adieraziko zaio Alkateari.

3.- Udal-talde politikoak eratu izanaren berri eta bertako partaide eta bozeramaileen



nortasunaren berri emango zaio Udalbatzarrari, aipatutako idatzi horiek aurkeztu ondoren egiten den lehenengo bilkuran. Era berean jokatuko da agintaldian sor daitezkeen gainerako aldaketekin.

### **39. artikulua.- Udal-talde politikoetako kideen altak eta bajak.**

1.- Udal-talde politiko bat eratu ondoren, kideren bat kanporatu edo barneratzen bada, Alkatetzari zuzendutako eta Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztutako idatzi baten bitartez jakinaraziko da.

2.- Halaber, zinegotziren batek, bere borondatez, zinegotzi izateari utzi gabe, kide den udal-talde politikoa uzten baldin badu, Alkatetzari jakinarazi beharko dio aurreko prozedura berari jarraiki.

3.- Horren guztiaren berri emango zaio Udalbatzarrari, egiten den lehen bilkuran.

### **40. artikulua.- Udal-talde politikoaren funtzionamendurako baliabideak.**

1.- Udalak udal-talde politiko bakoitzari bulegoak edo lokalak esleituko dizkie, modu independentean elkartzeko eta herritarren bisitak jasotzeko, baita beren funtzionamendurako beharrezkoa duten materiala ere, lortutako ordezkariaren eta proportzionaltasunaren irizpideei jarraiki.

Banaketa hori aho batez erabakiko da agintaldiko lehen Bozeramaileen Batzordean; ez bada akordiorik lortzen, Alkatetzak erabakiko du.

2.- Halaber, udal-talde politiko bakoitzari funtzionamendu-gastuetarako diru-zenbateko bat esleitu ahal izango dio urtero. Talde bakoitzeko zenbateko finko bat banatuko da, eta beste zenbateko bat taldea osatzen duen zinegotzi kopuruaren arabera. Zenbateko hori udal-aurrekontuetan izendatuko da, eta urteko onespenerekin batera berrikusiko da, baina ezingo da inola ere erabili Udalbatzaren zerbitzuan lan egiten duen edozein eratako langilearen ordainsariak ordaintzeko edo ondare izaerako aktibo finko gisa eratu daitezkeen ondasunak eskuratzeko.

Talde politikoek aurreko paragrafoak aipatzen duen diru-esleipenaren kontularitza berezi bat eraman beharko dute, eta Udalbatzarraren esku jarriko dute, hark eskatzen duen guztietan.

3.- Udal-talde politikoek eskubidea dute Udalak beren esku zenbait lokal jar ditzan, herritarrekin edo herri-erakundeekin bilerak egin ahal izateko.

Lokalen bat behar duten udal-talde politikoek eskabide idatzi bat aurkeztuko dute beren



bozeramailearen bitartez. Alkateak beharrezko jarraibideak emango ditu eskatzaileak lokala eduki dezan. Lokala erabiltzerik ez baldin badago, eskatutako egunean eta orduan beste erabilera batzuetarako xedatua dagoelako, beste egun baterako eskainiko da, eskatzaileari interesatzen zaionaren arabera eta hirugarrenen kaltetan izan gabe.

Horrelako bilerak ezin daitezke Udalbatzarraren bilkurekin batera egokitu. Lokalak erabiltzeko baimena eman ondoren, bilera horren egunarekin egokitzen den batzar-bilkura baterako deialdia egiten bada, baliogabetuta geratuko da baimen hori, eta beraz, bilera hori egiteko eguna atzeratuta geratuko da.

4.- Udal-talde politikoek Udalaren bulegoetan banatu ahal izango dute informazio idatzia, baita Udaletxean horretarako xedatuta dauden iragarki-tauletan zintzilikatu ere.

## **II. KAPITULUA.- ATXIKIPENIK GABEKO ZINEGOTZIA.**

### **41. artikulua.- Kontzeptua.**

1.- Beren alderdi politikoaren hautagai-zerrendatik datozen zinegotziek eratutako udal-talde politikoaren barruan sartzan ez diren zinegotziak, beren Taldea abandonatzen dutenak edo bertatik kanporatuak izan direnak atxikipenik gabeko zinegotzien izaera edukiko dute.

Horrela erabakitzen duen epai judizial bat aplikagarri zaien Udalbatzako kideak atxikipenik gabeko zinegotzi izatera igaroko dira.

2.- Atxikipenik gabeko zinegotziak, horien kopurua edozein izanik ere, ezingo dira beste udal-talde politiko baten barruan sartu, eta ezingo dute horrelakorik eratu ere, eta beraz, udalbatzan burutzen duten jarduna bakarka burutuko dute.

3.- Atxikipenik gabeko zinegotziak, hain zuzen, Udalbatzako kide gisa indibidualki dagozkion eskubide ekonomiko eta politikoak bakarrik edukiko ditu, eta horiek ezin daitezke izan, inola ere, bere jatorriko Taldean egonik legezkiokkeenak baino handiagoak.

Dauden ahalbideen arabera, aurreko artikulua 1. apartatuan udal-talde politikoaren funtzionamendurako aurreikusten diren baliabide berberak esleituko zaizkio.

4.- Zinegotzi batek atxikipenik gabeko zinegotziaren izaera eskuratzen duenean, Batzarrari jakinaraziko dio bai interesatuak berak edo bai kide izan den Taldeko Bozeramaileak.

5.- Udal-talde politiko bateko zinegotzi gehienek hauteskundeetan parte hartzean aurkeztu ziren hautagai-zerrendari dagokion alderdi politikoa utzi arren, edo bertatik kanporatuak izan arren, alderdi politiko horretan jarraitzen duten zinegotziak izango dira udal-talde



politikoaren partaide legitimoak, ondorio guztietarako. Edonola ere, dagokion hautagai-zerrenda aurkeztu zuen alderdi politikoaren legezko ordezkariarengana jo ahal izango du udalbatzako idazkariak, adierazitako xehetasun horien egiazkotasuna azaldu diezaion.

**42. artikulua.- Udal-talde politikoek atxikipenik gabeko zinegotziarekiko duten konpromisoa.**

1.- Udal-talde politikoek ez dute onartuko beste alderdi politiko baten hautagai-zerrendan hautatua izan den zinegotzirik.

2.- Era berean, ez dute onartuko atxikipenik gabeko zinegotzien laguntzarik zentsuramozioak gauzatzeko, ezta Udal Batzarraren ez-ohiko bilkurak eskatzeko ere.

**IV. TITULUA. ORGANOAK ETA BEREN FUNTZIONAMENDUA.**

**I. KAPITULUA. ORGANOAK ORO HAR.**

**43. artikulua.- Udal Organoak.**

1.- Alkateak eta zinegotziek osatzen dute Udala, eta zinegotzi horien artetik alkateordeak izendatuko ditu alkateak.

2.- Ondorengo hauek Udalaren nahitaezko organoak dira:

- a) Alkatea.
- b) Alkateordeak.
- c) Batzarra.
- d) Tokiko Gobernu Batzordea.
- e) Informazio Batzorde iraunkorrak.
- f) Kontuen Batzorde Berezia.

3.- Ondorengo hauek Udaleko organo osagarriak dira:

- a) Zinegotzi delegatuak.
- b) Bozeramaileen Batzordea.
- c) Zerbitzuak kudeatzeko organo deskontzentratu eta deszentralizatuak.
- d) Herritarrek Parte Hartzeko Foroak edo Udalak sor ditzakeen Sektore Kontseiluak.
- e) Informazio Batzorde bereziak.



## **II. KAPITULUA. ALKATEA.**

### **44. artikulua.- Udalbatzako Lehendakaria.**

- 1.- Alkatea pertsona bakarreko organoa da eta bera da Udalbatzako lehendakaria.
- 2.- Alkateak bere karguari uko egiteko, hala egokituz gero, Udal Batzarraren aurrean egingo du baina horrek ez du zertan esan nahi zinegotziaren karguari uko egiten dionik.

### **45. artikulua.- Konfiantza-galdea.**

1.- Alkateak konfiantza-galdea eska diezaioke Udal Batzarrari, ondorengo gai hauetako edozein onestearen edo aldatzearen inguruan:

- a) Urteko aurrekontuak.
- b) Araudi organikoa.
- c) Zergei buruzko ordenantzak.
- d) Udal eremuko planeamendu orokorreko tresnen izapideei amaiera ematen dien onespena.

2.- Aurreko zenbakian aipatutako gaietako baten inguruan akordioa lortzearekin loturiko konfiantza-galdea aurkezten bada, Udal Batzarraren eguneko gai-ordenako dagokion puntuan agertuko da berariaz, eta akordio horiek hartzeko beharrezkoa izango da Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eskatutako bozketa-quoruma, horietako bakoitzarentzat. Nolanahi ere, izenez izen jendaurreko deialdia eginez egingo da bozketa.

3.- Konfiantza-galdea aurkeztu ahal izateko, aldez aurreko ezinbesteko baldintza izango da dagokion erabakia Udal Batzarrean eztabaidatu izana eta onartua izateko beharrezkoa den gehiengoa lortu ez izana.

4.- Konfiantza-galdeak ez baldin badu lortzen erabakia onetsia izateko aldeko boto nahikorik, Alkateak automatikoki utziko du bere kargua, eta jardunean geratuko da, kargu horretan jarraituko dionak karguaren jabetza hartzen duen arte. Alkate berriaren aukeraketa egiteko deialdia konfiantza-galdean hartutako erabakiaren bozketa egin eta hurrengo hamargarren laneguneko eguerdiko hamabietarako automatikoki eginda geratuko da, eta Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluan jasotako arauak erregulatuko dute, ondorengo ñabardurarekin: 250 biznietatik gora dituen udalerria denez gero, kargua utzi duen Alkatea zerrendaburu izatetik baztertua geratuko da aukeraketaren ondorioetarako, eta haren lekua beteko du zerrenda horretako bigarrenak, bai Alkatetzarako hautagaiak aurkezteari begira eta bai Alkatea automatikoki



izendatzeari begira ere, baldin eta zerrenda bozkatuenekoa bada eta hautagai bakar batek ere ez badu lortzen legezko zinegotzi kopuruaren gehiengo absolutuaren botorik.

5.- Aurreko zenbakian jasotako aurreikuspena ez da aplikagarri izango, baldin eta konfiantza-galde hori urteko aurrekontuak onesteari edo aldatzeari lotzen bazaio. Kasu horretan, konfiantza emantzat eta proiektua onetsizat joko da, baldin eta konfiantza-galdea baztertzeko bozketa egin zenetik hilabete bateko epearen barruan ez bada zentsura-moziorik aurkezten, Alkatetzarako hautagai alternatibo batekin, edo horrek aurrera egiten ez badu.

Ondorio horiei begira, hurrengo artikuluko 2. apartatuan ezarritako mugapenak ez du arau-indarririk izango.

6.- Alkate bakoitzak ezingo du konfiantza-galde bat baino gehiago proposatu urtean, bere agintaldia hasten denetik kontaktzen hasita, ezta bi baino gehiago ere agintaldi osoaren iraupenean. Udalbatza bakoitzaren agintaldiaren azkeneko urtean ezingo da konfiantza-galderik aurkeztu.

7.- Ezingo da konfiantza-galderik aurkeztu zentsura-mozio bat aurkezten denetik mozioaren bozketa egiten den arte.

8.- Konfiantza-galde batekin loturiko gai bat onestearen aldeko botoa eman duten zinegotziek ezingo dute hori proposatu duen Alkatearen aurkako zentsura-moziorik sinatu sei hilabeteko epea igarotzen den arte, mozioaren bozketa egiten den egunetik kontaktzen hasita.

Halaber, aipatutako epe horretan, zinegotzi horiek ezingo dute konfiantza-galdearekin loturiko gai horren aurkako botorik eman, baldin eta aurreko beste bozketa hori egin den baldintza berberetan egiten bada bozketa. Aurkako botoa ematen baldin badute, baliogabetzat joko da boto hori.

#### **46. artikulua.- Zentsura-mozioa.**

1.- Zentsura-mozio baten bitartez Alkatea bere kargutik kendu ahal izango da, eta zentsura-mozio hori aurkeztzean, izapidetzean eta bozkatzean ondorengo arau hauek beteko dira:

a) Zentsura-mozioa Udalbatzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutuak proposatu beharko du gutxienez, eta Alkate izateko hautagai bat jaso beharko du; edozein zinegotzi izan daiteke, baina mozioa aurkezteko idatzi horretan berariaz alkategai izatea onartzen duela adieraziko da.



Zentsura-mozioa proposatu dutenetako batek Alkatearen udal-talde politiko bereko partaideetako bat baldin bada edo izan baldin bada, aurreko paragrafoan eskatzen den gehiengo hori egoera horretan aurkitzen den zinegotzi kopurua gehituz zabalduko da.

Baldintza hori bera aplikatuko da mozioa proposatu duten zinegotzietako batek, edozein arrazoi dela eta, agintaldiaren hasieratik bere atxikipena agertu izan dion udal-talde politikokoa izateari uzten badio.

b) Zentsura-mozioa proposatzen den idatzi horretan Notarioak edo Udalbatzako Idazkari Nagusiak behar bezala benetakotutako sinadurak jaso beharko ditu, eta sinatzaileetako edozeinek aurkeztu beharko du Udalbatzaren aurrean. Idazkari nagusiak egiaztatu egingo du zentsura-mozioak artikulua honetan eskatutako betebeharrak betetzen dituela, eta ekitaldi horretan bertan dagokion izapide egiaztagarria egingo du.

c) Horrela izapidetutako agiria Udalbatzaren Erregistro Nagusian aurkeztuko du mozioa izenpetu duen edozeinek, eta Udal Batzarrerako deialdia automatikoki eginda dagoela joko da hori erregistratu eta hurrengo hamargarren laneguneko eguerdiko hamabietarako. Udalbatzako Idazkariak xehetasun horren berri ematen duen jakinarazpena igorri beharko die bertako kide guztiei egun bateko gehieneko epearen barruan, agiri hori Erregistroan aurkezten denetik kontatzen hasita, bilkurara bertaratu daitezten, eta bilkuraren eguna eta ordua zehaztuko ditu.

d) Adin Mahai batek zuzenduko du Batzarra, bertaratutako adin handieneko eta txikieneko zinegotziek osatua, Alkatea eta Alkate izateko hautagaia salbuetsita, eta Udalbatzako idazkaria denak egingo ditu Idazkari-lanak, hori egiaztatu ondoren. Adin handieneko zinegotzia izango da Lehendakaria.

e) Mahaia zentsura-mozioa irakurtzera mugatuko da, eta izapideek aurrera jarraitu ahal izateko egiaztatu egingo du une horretan bertan a) apartatuko hiru paragrafoetan eskatutako betebeharrak mantentzen direla, eta hala egokituz gero, hitz egiteko aukera emango die, gehienez ere bost minutuz, Alkate izateko hautagaiari, Alkateari eta udal-talde politikoetako Bozeramaileei, eta zentsura-mozioaren bozketa egingo du.

f) Zentsura-mozioan aipatzen den hautagaia Alkate izendatuta geratuko da baldin eta Udalbatza legez osatzen duen zinegotzi kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin aurrera egiten badu.

g) Izendatutako hautagaiak kargu hori onartu eta dagokion zina edo promesa egin beharko du. Hautagaia bilkura horretan ez badago, legegintzaldiaren hasieran alkatea bere karguaz jabetzeko xedatutakoaren arabera jokatuko da.

Arrazoi justifikaturik gabe kargu horren jabetzarik hartzen ez badu, hauteskunde-legerian Alkatearen postua hutsik dagoen kasuetarako xedatutakoa beteko da.

2.- Zinegotzi batek ezin du bere agintaldian zentsura-mozio bat baino gehiago izenpetu. Ondorio horiei begira, ez dira aintzat hartuko artikulua honetako 1. apartatuaren b) letran aurreikusitako betebeharrak ez betetzeagatik izapidetu gabe geratu diren mozioak.



3.- Ezustean Alkateak bere kargua uzten baldin badu, horrek ez du etengo zentsura-mozioa izapidetzea eta bozkatzea.

#### **47. artikulua.- Alkatea ordezkatzeta.**

1.- Alkatearen postua hutsik aurkitzen bada, bertan ez badago edo gaixo badago, Alkateordeek ordezkatu dute, izendapenaren hurrenkerari jarraiki.

Ahal den guztietan, alkateak berak, Dekretu bidez, bideratutako eskuordetzea aldeztu aurretik formalizatuz egingo da ordezkapena.

Egoera jakin batean dauden inguruabarrengatik dekretu hori formalizatzea zaila den kasuetan, nahikoa izango da Alkatea ordezkatzeta egokitzen zaion Alkateordeari edo Udaleko Idazkari Nagusiari jakinaraztea zer egoerak eragin duen ordezkapen hori, ordezkapena automatikoki gauzatu dadin.

24 ordu igaro ondoren ez badute Alkatea non dagoen jakitea lortu, eta ez bada eskuordetzerik gauzatu eta ez bazaio ezagutarazi zein egoeratan dagoen, ordezkatzeta egokitzen zaion Alkateordeak ordezkatu egingo du, hark zituen eginkizun guztietan, eta Udalbatzako gainerako kideei halaxe jakinaraziko zaie.

Era berean, esku hartzetik abstenitzeko arrazoiren bat baldin badago, dagokion Alkateordeak ordezkatu du automatikoki.

2.- Edonola ere, Idazkari Nagusiak beharrezko neurriak hartuko ditu egoera horren berri jasotzeko, eta ordezkapen hori berandutu gabe gauzatzeko, eta egiten diren ordezkapen guztien berri ahalik eta azkarren emango du.

#### **48. artikulua.- Alkatearen eskumenak.**

1.- Alkateari dagozkio Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako eskumen guztiak.

2.- Alkateak bere eskumenak eskuordetu ahal izango ditu, artikulua horretan aurreikusitako mugekin.

3.- Alkateak Tokiko Gobernu Batzordearen aldeko eskuordetzeak egiten dituenean, kide anitzeko organo gisa, Alkateak eskuordetu ez dituen eskumenak gauzatzean ematen dituen ebazpenen balio berbera izango dute eskuordetutako gaien inguruan Tokiko Gobernu Batzordeak hartzen dituen erabakiek, horren funtzionamendu-arauekin bat etorritik hartzen diren erabakien kaltetan izan gabe.





4.- Alkateak Tokiko Gobernu Batzordeko kideei eskumen jakin batzuk gauzatzea eskuordetu diezaieke, egiteko berezi batzuekin loturik edozein zinegotziren alde –Batzorde horretakoak ez izan arren– egin ditzakeen eskuordetze berezien kaltetan izan gabe.

Eskuordetze orokorrak arlo edo gai jakin baterako edo batzuetarako izango dira, eta horren barruan sar daiteke bai dagozkion zerbitzuak zuzentzeko ahalmena eta bai horiek oro har kudeatzekoa ere, baita hirugarrengeoi eragiten dieten administrazio-ekintzen bitartez ebazteko ahalmena ere.

5.- Era berean, Alkateak eskuordetze bereziak egin ahal izango ditu edozein zinegotziren alde, aipatutako arlo horietan barneratutako gai jakin batzuk zuzentzeko eta kudeatzeko. Kasu honetan, eskuordetze orokor bat hartua duen zinegotzi batek bere arloan sartutako egiteko berezietarako eskuordetze bereziak dituzten zinegotzien jarduera gainbegiratzeko ahalmena izango du.

6.- Eskuordetze bereziak hiru eratakoak izan daitezke:

a) Proiektu edo gai jakin bati buruzkoak. Kasu honetan, eskuordetzearen eraginkortasuna, horren barruan Alkateak eskuordetu ditzakeen ahalmen guztiak sar daitezkeelarik, hirugarrengeoi eragiten dieten ekintzak egitekoa ere barne, proiektua kudeatzeko edo gauzatzeko denborara mugatuko da.

b) Zerbitzu jakin bati buruzkoak. Kasu honetan, dagozkion zerbitzuen barne-zuzendaritza eta kudeaketa sartuko da eskuordetzearen barruan, baina ezingo du jaso hirugarrengeoi eragiten dieten administrazio-ekintzen bitartez ebazteko ahalmena.

c) Barruti edo auzo bati buruzkoak. Alkateak gai jakin batzuen inguruan eskuordetu ditzakeen ahalmen guztiak sar daitezke hemen, baina eskuordetzearen lurralde-eremura mugatuta betiere. Horrelako eskuordetzeekin batera arlokako beste eskuordetze orokor batzuk baldin badaude, eskuordetzeko Dekretuek ezarriko dituzte batzuen eta besteen arteko koordinazio-mekanismoak, gobernu-unitatea eta udalerraren kudeaketa bermatuta gera dadin.

7.- Alkatea ez dagoenean edo gaixo dagoenean ordezkatzen den kasuetan, Alkateorde ordezkatzaileak ezingo ditu baliogabetu Alkateak onartuak dituen eskuordetzeak.

#### **49. artikulua.- Alkateak eskuordetzeak egiteko prozedura.**

1.- Aurreko artikulua aipatzen dituen eskuordetze guztiak Alkatearen Dekretu baten bitartez egingo dira, eta eskuordetze horrek aipatzen dituen gaien eremua, eskuordetzen diren ahalmenak eta horiek gauzatzeko baldintza bereziak zehaztuko ditu.



2.- Alkatearen eskumenak eskuordetzen direnean, eskuordetze hori Tokiko Gobernu Batzordearen alde izanez gero, Dekretua egiten den biharamunetik bertatik izango dute indarra, Dekretu horrek besterik xedatu ezean.

Eskuordetze hori zinegotzi baten alde denean, zinegotzi delegatuak hura onartzen duenetik aurrera. Jakinarazpena egin eta hiru laneguneko epean zinegotzi delegatuak ez badu berariazko inolako adierazpenik egiten organo eskuordetzailearen aurrean, eskuordetze hori onartzen duela ulertuko da.

3.- Aurreko apartatuetako arauak eskuordetzeen ondorengo edozein aldaketetan ere aplikagarri izango dira.

4.- Eskuordetze guztiak eta horien aldaketa guztiak Udal Batzarrari jakinaraziko zaizkio eskuordetzeak egin ondoren hark egiten duen lehen bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean ere argitaratuko dira, legeak dioen moduan.

5.- Eskuordetzeko dekretuan besterik xedatzen ez baldin bada, Alkateak ondorengo ahalmenean mantenduko ditu eskuordetutako eskumenari dagokionez:

- a) Informazio xehakaturia jasotzekoa, bai eskuordetutako eskumenaren kudeaketaren inguruan eta bai eskuordetzea dela eta sortutako ekintza edo xedapenen inguruan ere.
- b) Garrantzi handiko erabakiak hartu aurretik informazioa jasotzekoa.
- c) Eskuordetutako eskumenez baliatuz organo eskuordetuak xedatzen dituen ekintzak organo eskuordetzaileak xedatutzat jotzen dira, eta horren ondorioz, haren ardura izango da jar daitezkeen berraztertze-errekurtsoak ebaztea, non eta ez den Dekretuan edo eskuordetzeko erabakian berariaz agintzen organo eskuordetuak ebatzi ditzala xedatutako ekintzen aurkako berraztertze-errekurtsoak.

6.- Eskuordetutako eskumena edozein unetan eskuratu, ezeztatu edo aldatu ahal izango du Alkateak, administrazio-prozedura erkideari buruzko indarreko legeriarekin bat etorritik, eta ezeztatu ondoren, organo eskuordetuak hartutako ebazpenak berrikusi ahal izango ditu, administrazio-ekintzak ofizioz berrikusteko ezarritako baldintza eta kasu berberetan. Horiek emateko eskatutako izapide berberak bete beharko dira. Hala ere, Dekretua xedatzen den unetik bertatik izango du indarra.

7.- Eskuordetze horiek ez dira ezeztatuta geratuko Alkatetzaren titulartasunean aldaketa bat gertatzeagatik soilik.



## **50. artikulua.- Alkatearen erabakiak.**

Kasu bakoitzean beste era batekoak ere aplikagarri izan badaitezke ere, Alkatearen erabakiek, oro har, ondorengo itxura hauetakoren bat hartuko dute:

- Alkatetzaren Dekretua: Itxura hau hartuko dute prozeduretan administrazio-bideari amaiera emango dioten alkatearen erabakiek, baita aurkeztutako alegazioei edo proposamenei erantzuten dieten beste batzuek ere.

- Alkatetzaren probidentzia: Itxura hau hartuko dute prozedurak hasteko edo izapidetzeko ekintzei buruzko Alkatearen erabakiek, aurreko apartatuaren arabera Alkatetzaren Dekretua beharrezkoa duten erabakiek izan ezik. Ez da beharrezkoa horrek oinarri juridikorik edota inolako lege-justifikaziorik edukitzea.

- Barneko lan-agindua: Itxura hau hartuko dute udal langile, arlo, zerbitzu, administrazio-unitate... jakin bati lan edo eginkizun zehatz bat egiteko obligazioa ezartzen dioten erabakiek. Idatziz edo ahoz eman ahal izango dira.

- Jarraibidea: Itxura hau hartuko dute Udal Administrazioa osatzen duten organo, arlo, zerbitzu, administrazio-unitate eta abarren jardueran bete beharreko xedapen edo irizpideek, baina edonola ere, Araudi honetako xedapenak errespetatu beharko dituzte.

- Bandoa: Itxura hau hartuko dute Alkatetzak emandako xedapen orokorren oroigarriek, baita Alkatearen arauzko ahalmenaren adierazpenek ere.

## **51. artikulua.- Alkatearen kabinetea.**

Aurrekontu-xedapenek ahalbidetzen duten neurrian, Alkateak berehalako laguntza eta aholkularitza iraunkorrerako organo bat eduki ahal izango du, konfiantzazko lanak eta aholkularitza-lan bereziak egingo dituena. Alkatearen Kabineteko kideek aldi baterako langileen izaera edukiko dute, hark libreki izendatu eta kargutik kenduko ditu, eta izendatu zituenaren agintaldia amaitzean automatikoki beren karguak utziko dituzte.

Alkateak nahitaez beren karguetatik kendu beharko ditu baldin eta, udalaren aurrekontu orokor berri bat indarrean sartzan denean, ez bada aldi baterako langileak kontratatzeko aukerarik aurreikusten. Aurrekontu berriak langile horien murrizpen bat aurreikusten baldin badu, Alkateak kargutik kendu beharko ditu murrizpenak eragindako pertsonak.

Kabinete honetako partaideen kopuruak ez ditu, inola ere, aldi baterako langileen izendapenarekin loturik aplikagarri diren arauak ezartzen dituzten mugak (gaur egun, TAOALaren 147 bis artikuluekin bat etorritik, bi dira).



Artikulu honek aipatzen dituen aldi baterako langileak, oro har, Udaleko zerbitzu orokorreari izendatu beharko zaizkie. Hori hala izanik ere, premia hori alde zurretik justifikatuta, Alkateak salbuespen modura Udaleko egitura propioko beste zerbitzu edo departamentu batzuei izendatu ahal izango dizkie, izaera funtzional batez.

### **III. KAPITULUA. ALKATEORDEAK.**

#### **52. artikulua.- Alkateordeak izendatzea eta kargutik kentzea.**

1.- Alkateak Tokiko Gobernu Batzordeko kideen artetik libreki izendatu eta kargugabetuko ditu Alkateordeak. - Izendapenak eta kargugabetzeak Alkatearen ebazpen baten bitartez egingo dira eta Udal Batzarrari jakinaraziko zaizkio egiten den lehen bilkuran, baita pertsonalki ere izendatuei, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta Alkateak ebazpena sinatu eta hurrengo egunetik bertatik izango dute eraginkortasuna, ebazpenean besterik xedatu ezean.

2.- Alkateordeen kopurua ezin daiteke izan Udalbatzako legezko kide kopuruaren heren bat baino handiagoa. Zenbaketaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko zinegotzien kopuru osoa hiruren artean zatitzean lortzen diren dezimalak.

3.- Alkateordea izateari utziko zaio, kargua galtzean ez ezik, baita berariaz horri uko egiten zaionean ere, idatziz adierazia, eta halaber, Tokiko Gobernu Batzordeko kide izateari uzten zaionean.

#### **53. artikulua.- Eginkizunak.**

Alkateordearen eginkizunak ondorengo hauek izango dira:

- a) Alkatea ordezkatzea, hala egokitzen denean.
- b) Behin-behinekoz Udal Batzarraren Lehendakariaren lanak egitea, bertako titularra abstenitzeko arrazoiren bat dagoenean.
- c) Tokiko Gobernu Batzordeko kide gisa dagozkionak.

### **IV. KAPITULUA. UDAL BATZARRA.**

#### **1. atala. Xedapen Orokorrak.**

#### **54. artikulua.- Osaera.**

1.- Udal Batzarra zinegotzi guztiek osatzen dute eta alkatea edo jardunean hura legez ordezkatzeko duena izango da bertako lehendakaria.



2.- Udalbatzako Idazkariak egingo ditu bertako Idazkari lanak.

### **55. artikulua.- Eskumenak.**

Udal Batzarrak legez dagozkion eskumenak izango ditu, nagusiki Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22. artikuluan jasotakoak, nahiz eta ahalmena izango duen egoki iruditzen zaizkionak Alkateari edo Tokiko Gobernu Batzordeari eskuordetzeko. Udal Batzarrak egindako eskuordetzeek dagokion erabakia hartzen den unetik bertatik izango dute eraginkortasuna, eta indarrean iraungo dute kontrakoa dioen beste erabaki bat hartzen den arte.

### **56. artikulua.- Bilkurak egiteko lekua.**

Udal Batzarrak Udaletxean egingo ditu bilkurak, horretarako xedatutako Aretoan, nahitaezko kasuetan izan ezik, eta horrelakoetan, deialdiaren bidez edo Alkateak aldez aurretik egin eta Udalbatzako kide guztiei jakinarazitako ebazpen baten bidez, beste eraikin edo lokal bat gaitu ahal izango da xede horretarako. Nolanahi ere, xehetasun hori aktan agerraraziko da.

Salbuespenez, eta erakundearentzat garrantzi berezia duten kasuetan, behar bezala justifikatuta, batzar-bilkura udalerriko beste toki batean egiteko deialdia egin dezake Alkateak.

Nolanahi ere, salbuespenezko inguruabar horiek aktan agerraraziko dira.

### **57. artikulua.- Bilkura motak.**

Batzarraren bilkurak ohikoak, ez-ohikoak eta premiazko izaera duten ez-ohikoak izan daitezke.

Ohiko bilkurak hilean behin egingo dira, abuztuan izan ezik, Batzarraren erabakiz ezartzen diren egunetan eta orduetan.

Ez-ohiko bilkurak beren izaera bereziagatik horrelakoak egitea eskatzen duten gaiak daudenean egingo dira, edo hartu beharreko ebazpena dela eta, hurrengo ohiko bilkuraren eguneko gai-zerrendan sartzeak eragingo lukeen berandutzea onartzen ez duenean. Alkateak egingo du deialdia, bere ekimenez edo Udalbatzako legezko kide kopuruaren laurden batek gutxienez hala eskatuta; eskaera hori idatziz egingo da, eta bertan zehaztuko da horren arrazoi den gaia eta, erabaki bat hartzeko asmorik baldin badago, eztabaidara eta bozketara ekarri nahi den testua ere gehituko da.



Premiazko izaera duten ez-ohiko bilkurak, azertu beharreko gaiaren berehalako premiazkotasuna dela eta, beharrezkoa den gutxieneko aurrerapenarekin ez-ohiko bilkura baten deialdia egiteko aukerarik ematen ez dutenak izango dira. Kasu honetan, eguneko gai-ordenako lehen puntu gisa, premiazkotasunaren adierazpena barneratuko da, eta hori onetsi egin beharko da bilkurarekin aurrera jarraitu ahal izateko.

Batzarraren bilkuretarako deialdiak Legean aurreikusitakoa bete du.

### **58. artikulua.- Bilkuren publizitatea.**

Bilkurek izaera publikoa izango dute.

Bilkuren izaera publikoak ez die bertaratuei baimenik ematen bertan esku hartzeko, Araudi honetan interesatuei entzuteko aurreikusitako formula batzuk egon daitezkeen arren.

Edozein herritarrek grabatu ditzake batzarraren bilkura publikoak egoki iruditzen zaizkion baliabideak erabiliz, bai zuzenean Internet bidez emateko eta bai online argitaratu eta mantentzeko ere, edozein ordutan eta edozein tokitatik ikusi ahal izan daitezten.

Bilkura egiten den bitartean, Udalbatzako kideek uko egingo diote beren eserlekuetatik bertaratutako publikoarekin edozein eratako harremana edukitzeari, baita Udalbatzako gainerako kideen adierazpen-askatasuna eragozten edo murrizten duen edozein jokabide edo jarduera edukitzeari ere.

Alkateak bilkura horiek normaltasun osoz egin ahal izateko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu, eta ez du gorespenezko edo gutxiespenezko adierazpenik onartuko, eta ekitaldia behar bezala garatzea edozein modutan eragozten dutenak kanporatuak izan daitezela aginduko du.

Ordena urratzen baldin bada eta horrek bilkurarekin aurrera jarraitzea ezinezko egiten badu, Udalbatzako kideen eta ekitaldira bertaratu diren gainerakoen segurtasuna babesteko beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izango ditu Alkateak.

Hori guztia hala izanik ere, bilkura amaitu eta bukatutzat eman ondoren, Lehendakariak galderen txanda bat ireki dezake bertaratu direnekin, udalarentzat interesa duten gai jakin batzuen inguruan.



## **2. atala. Deialdia.**

### **59. artikulua.- Deialdia.**

Deialdia egiten den egunetik bilkura egingo den egunera gutxienez bi lanegun igaroko dira tartean, premiazko izaera duten ez-ohiko bilkuren kasuan izan ezik.

Larunbatak laneguntzat hartuko dira ondorio guztietarako, jai-egunarekin egokitu ezean.

Eguneko gai-ordena jasoko duen deialdia egintzat joko da zinegotziak aukeratutako ondorengo bitarteko hauetakoren bat erabiliz egin baldin bada:

- a) Posta elektronikoa bidez, interesatuak adierazitako helbidean.
- b) Telefono-mezu bidez, zinegotziak adierazitako telefono-zenbakian.
- c) Jakinarazpen pertsonal bidez, interesatuak adierazitako helbidean.

Udalbatzako kideak Udala Batzarren deialdia eta eguneko gai-zerrenda jasotzeko aukeratutako bitartekoak, halaber, Udalean osatu diren informazio-batzorde iraunkor edo ez-ohiko desberdinen deialdiak eta eguneko gai-zerrendak bidaltzeko ere balioko du.

### **60. artikulua.- Gaien dokumentazioa.**

Eguneko gai-zerrendan sartutako gaiei buruzko espedienteak Udalbatzako kideen esku egongo dira deialdia egiten den egunetik bertatik Udaleko Idazkaritza Nagusian. Udaleko Idazkari Nagusiaren eskumena da espedienteak Idazkaritzara bidali ahal izateko prozeduraren eta moduaren inguruan beharrezkoak diren jarraibideak ematea.

Udalbatzako kideek, beraz, espedienteak aztertu ahal izango dituzte, eta zaindu egin beharko dute originalak ez daitezen atera ikusgai aurkitzen diren tokitik inolako aitzakiarekin.

Aurrez esandako guztiaren kaltetan izan gabe, Idazkaritza Nagusiak, zerbitzu informatikoen laguntzarekin, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu zinegotzietatik bitarteko telematikoa erabiliz espedienteak eskuratu ahal izan ditzaten. Informazio-batzordeetako pertsona titularrek bete egin beharko dituzte idazkari nagusiak horrekin loturik ematen dituen jarraibideak.

Edonola ere, erabakien eta diktamenen proposamenak posta elektronikoa bidez bidaliko zaizkie Udalbatzako kideei, berariaz horri uko egiten ez badiote.



### **61. artikulua.- Eguneko gai-zerrenda.**

Deialdiarekin batera joango den eguneko gai-zerrenda Lehendakariak ezarriko du, Idazkari Nagusiak lagunduta, eta horri begira, deialdian sartuko diren espediente osoak behar hainbateko aurrerapenez ikusgai egoteko eta berrikusi ahal izateko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu Idazkari Nagusiak. Eguneko gai-zerrendan ezingo da inolako gairik sartu baldin eta horren espediente osoa ez badago eskatutako aurrerapenarekin Idazkaritza Nagusian

Behar bezala justifikatutako premiazkotasun-arraioengatik, proposatu diren baina dagokion Batzordeak alde aurretik aztertu ez dituen gai batzuk sartu ahal izango ditu Alkateak eguneko gai-zerrendaren barruan, baldin eta Udal Batzarrak, eztabaidari ekin aurretik, gehiengo soil bidez horien premiazkotasuna adierazten badu.

Ohiko bilkuren eguneko gai-zerrendaren barruan galde-eskariei dagokien puntua agertuko da beti.

Era berean, hala egokituz gero, puntu independente gisa, aurkeztutako eragozpenen aurka Alkateak emandako ebazpenei buruz kontu-hartzaitzak egindako txostena gehituko da, baita diru-sarreraren alorrean hautemandako irregulartasun nagusien laburpen bat ere.

### **3. atala. Garapena.**

### **62. artikulua.- Udalbatzako kideek Aretoan izango duten kokapena.**

Udalbatzako kideak Batzar Aretoan eseritzen direnean beren Taldearekin bat eginda eseriko dira. Taldeen kokapen-ordena Alkateak erabakiko du, eta Alkatearen Taldeko kideek osatutakoak izango du lehentasuna; gainerako Taldeei dagokienez, boto kopururik handiena erdietsi duten taldeei lehentasuna emanez kokatuko dira. Edonola ere, udalbatzako kideen kokapenak erraztu egin beharko du botoak eman eta zenbatzea.

### **63. artikulua.- Quoruma.**

Udal Batzarra balio osoz eratu dadin, beharrezkoa izango da Udalbatzako legezko kide kopuruaren heren bat bertan egotea. Quorum hori bilkura guztian mantendu behar da. Nolanahi ere, ezinbestekoa da Alkatea eta Idazkari Nagusia, edo legez horiek ordezkatzan dituztenak, bertan egotea.

Lehen deialdian ez bada beharrezko quoruma osatzen aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera, automatikoki bilkura hori bi egun geroago eta ordu berean egiteko deialdia egintzat ulertuko da. Orduan ere ez bada beharrezko quoruma osatzen, Lehendakaritzak indarririk





gabe utziko du deialdia, eta eguneko gai-zerrendan sartutako gaien azterketa hurrena egiten den lehen bilkurara atzeratuko du, ohikoa izan edo ez-ohikoa izan.

#### **64. artikulua.- Udal Batzarraren bilkuren dinamika.**

1.- Bilkurari hasiera ematean Lehendakariari galdetuko zaio ea Udalbatzako kideren batek oharren bat egin nahi dion deialdiarekin batera banatu den aurreko bilkuraren aktari. Oharrak ez baldin badago, onetsizat joko da. Oharrak egiten baldin badira, bidezkoak diren zuzenketak eztabaidatu eta erabakiko dira.

Hartutako erabakien muina ezingo da inola ere aldatu eta akats material soilak edo egitatezko akatsak bakarrik zuzendu ahal izango dira.

Akta bakoitzean aurrekoa irakurri eta onetsi dela aipatzen denean, egindako oharrak eta zuzenketak jasoko dira.

2.- Gai guztiak eguneko gai-zerrendan zerrendatuta datozen hurrenkeraren arabera eztabaidatu eta bozkatuko dira.

3.- Aurreko zenbakian xedatutakoa hala izanik ere, Alkateak gaien hurrenkera aldatu ahal izango du, edo gai bat baztertu, baldin eta gai hori onesteko gehiengo berezi bat behar bada eta eguneko gai-zerrendan hasiera batean aurreikusitako unean gehiengo hori erdiestea ezinezkoa bada.

4.- Ohiko bilkuren kasuan, edozein zinegotzik edo edozein udal-talde politikok deialdiarekin batera datorren eguneko gai-zerrendan sartuta ez dagoen eta galde-eskarien puntuan lekurik ez duen gairen bat premiazkotasun-arrazoiengatik barneratu dadila proposatu ahal izango du. Kasu hauetan, zinegotzi edo bozeramaile proposamengileak Alkateari eta udalbatzako gainerako kideei ezagutarazi beharko die, fotokopiak banatuz, dagokion bilkurari hasiera eman baino ordubete lehenago gutxienez. Eguneko gai-zerrendan sartutako gaiak aztertu ondoren eta galde-eskarien txandara igaro baino lehen, Taldeko Bozeramaile edo zinegotzi proposamengileek justifikatu egingo dute beren mozioaren premiazkotasuna, eta Udal Batzarrak bozkatu egingo du, jarraian, hori eztabaidatzea egokia den ala ez, eta horretarako ezinbestekoa izango da legezko zinegotzi kopuruaren gehiengo absolutua alde egotea.

Apartatu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko, inola ere, zentsura-mozioei, eta horrelakoak izapidetu, eztabaidatu eta bozkatzean, Legean ezarritakoa beteko da.



5.- Edonola ere, ez-ohiko bilkuretan, ezingo da eztabaidatu eta erabakirik hartu bertako deialdian sartuta ez dauden gaien inguruan, eta hala eginez gero, hartzen diren erabakiak eskubide osoz baliogabeak izango dira.

6.- Eguneko gai-zerrendan sartu ez diren eta Idazkaritzaren edo Kontu-hartzaitzaren arauzko txostena beharrezkoa duten gaiak baldin badira, saio horretan bertan egitea ezinezkoa izanez gero, Alkateari eskatu beharko diote atzeratu dezala gai horren azterketa, eta mahai gainean geratuko da hurrengo bilkura egin arte.

Eskaera horri erantzuten ez bazaio, Idazkariak berariaz agerraraziko du aktan.

7.- 5. zenbakian aurreikusitakoaren kaltetan izan gabe, bai ohiko bilkuretan eta bai ez-ohiko bilkuretan ere, Lehendakariak egoki ikusten baldin badu, udalarentzat interesa duten gaiei buruzko informazioa eman ahal izango du, horregatik eztabaidarik zabaldu behar izan gabe. Baldintza berdinetan, edozein zinegotziri baimena eman ahal izango dio esleitu zaizkion gaiekin loturiko auziren baten inguruan informazioa eman dezan.

8.- Bilkura hori egiten den bitartean, Alkateak eten egin ahal izango du, bere irizpide zuhurraren arabera, aztertzen ari diren gaiaren inguruan zinegotzien edo Taldeen artean eztabaidak ahalbidetzearren, eztabaidei atsedean ematearren edo beharrezkoa jotzen duen beste edozein arrazoirengatik.

#### **65. artikulua.- Espedienteak erretiratzea.**

Edozein zinegotzik, eztabaidatzen ari diren bitartean, eguneko gai-zerrendaren barruan sartutako espedienteren bat erretiratu dadila eskatu ahal izango du, horri beste dokumentu edo txosten batzuk gehitu diezazkioten, eta halaber, espediente hori mahai gainean geratu dadila, horren inguruko eztabaida hurrengo bilkurara atzeratuz. Kasu batean nahiz bestean, bozkatu egingo dute eskaera hori, eztabaida amaitu ondoren eta gaiaren muinari buruzko bozketari ekin aurretik. Gehiengo soilak eskaeraren alde bozkatzeko badu, ez da bidezkoa izango erabaki-proposamena bozkatzea.

#### **66. artikulua.- Eguneko gai-zerrendan sartutako puntuak irakurtzea.**

Eguneko gai-zerrendaren barruan sartutako puntu bakoitza aztertzen hasi aurretik, Idazkariak irakurri egingo du dagokion Informazio Batzordeak egindako diktamenean sartutako proposamena edo, oraindik diktamenik eman ez duen premiazko gairen bat baldin bada, Udal Batzarrak aztertuko duen proposamena. Edozein udal-talde politikok hala eskatzen duenean, espedientearen edo Batzordearen txosten edo diktamenaren barruan komenigarritzat jotzen diren atalak irakurri beharko dira, horiek hobeto ulertze aldera.



Irakurri ondoren inork ez badu hitza eskatzen, zuzenean bozkatu egingo da gai hori.

### **67. artikulua.- Eztabaidak.**

1.- Eztabaida sustatzen bada, Alkateak edo Lehendakariak aginduko ditu esku-hartzeak, ondorengo arau hauekin bat etorritz:

a) Alkateak edo Lehendakariak alde zuzenetik baimena ematen duenean bakarrik hartu ahal izango da hitza.

b) Boto partikularrik eta/edo zuzenketarik aurkeztu baldin bada, araudi honetan aurreikusitako moduan ekingo zaio horiek aztertzeari.

c) Ez badago ez boto partikularrik eta ez zuzenketarik ere, eztabaidari ekingo zaio, eta hasteko, diktamena egin duen Informazio Batzordeko kideren batek proposamenaren azalpen eta justifikazio bat egingo du, edo bestela, gainerako kasuetan, proposamena edo mozioa izenpetzen duten Udalbatzako kideetako batek, bere izenean edo proposamena egin duen kolektiboaren edo udal organoaren izenean. Proposamengilearen esku-hartzea ez da hamabost minututik gorakoa izango.

d) Jarraian, udal-talde politiko desberdinek eta, horrelakorik baldin badago, atxikipenik gabeko zinegotziek lehen txanda osatuko dute. Oro har, lehen esku-hartzeak ez dira hamar minututik gorakoak izango, nahiz eta, Bozeramaileen Batzordeak hala erabakitzen badu, denbora-tarte luzeagoa ezarri ahal izango den esku-hartze bakoitzerako, aztertu beharreko gaien konplexutasuna kontuan izanik, baina denbora-tarte horrek berdina izan behar du Talde guztientzat. Atxikipenik gabeko zinegotzirik baldin bada, horien denbora-tartea erdira murriztuko da.

Eztabaidari ekin aurretik, Alkateak atxikipenik gabeko zinegotzietan eta udal-talde politikoei galdetuko die ea esku hartu nahi duten. Nahi duten zinegotzietan edo Taldeek esku hartzeko hurrenkera ondorengo hau izango da: lehenik, atxikipenik gabeko zinegotzietan hartuko dute hitza, Alkate jaunak adierazten duen hurrenkerari jarraiki; gero, udal-talde politikoei hartuko dute, beren hautagai-zerrendak erdietsi duen boto kopuruaren arabera, txikienetik handienera.

e) Zinegotzi batek bere esku-hartzea hasi ondoren, ezingo du inork eten, Alkateak izan ezik, baina betiere denbora ahitu duela ohartarazteko, gai horretara mugatzeko edo hitza kentzeko, eta hori bidezkoa izango da ezarritako denbora-tartea amaitzean, baita amaitu dezala behin ohartarazi ondoren ere.

f) Esku-hartze bat dela eta, inork ahotan hartua izan dela jotzen badu, aipatua izateagatik txanda bat onar diezaiola eskatu ahal izango dio Alkateari. Alkatearen iritziz, eztabaida egin bitartean inor ahotan hartu baldin bada eta zinegotzi baten nortasun edo jokabidearen duintasun edo izen onari eragiten dioten balio-judizioak edo zehaztasun-erak egin badira, ahotan hartu denari hitza emango dio bi minututik gorakoa ez den tarte batez, eztabaidatzen ari diren gaiaren muinari heldu gabe, egindako aipamen horiei espresuki erantzun diezaien.



g) Talderen batek edo atxikipenik gabeko zinegotziren batek eskatzen baldin badu, bigarren txanda bat zabalduko da. Bigarren esku-hartzeak ez dira bost minututik gorakoak izango. Denbora hori ahitu ondoren, Alkateak amaitutzat jo dezake eztabaida, eta proposamengileak esku hartuko du azkenik, bere proposamena laburki berresteko edo aldatzeko.

h) Ez da onartuko etenaldirik, ohartarazteko edo eztabaidatutako gaira mugatzeko Alkateak egindakoak izan ezik.

2.- Udalbatzako kideek eztabaidaren edozein unetan hitza eskatu ahal izango dute ordenarazoren bat aztertzeko, eta horretarako, aplikatu dadila eskatzen duten araua aipatuko dute. Alkateak bidezkoa dena ebatziko du, baina ez da inolako eztabaidarik sortuko arrazoi horregatik.

3.- Idazkaritzako eta Kontu-hartzaitzako funtzionario arduradunek esku hartu ahal izango dute kontzeptu batzuen inguruan aholkularitza teknikoa eskaintzeko edo argibideak emateko, Alkateak hala eskatzen dienean. Funtzionario horien iritziz, eztabaidatutako puntuaren legezkontasunari edo aurrekontu-ondorioei buruzko zalantzarik sortu dezakeen gairik baldin badago eztabaida horretan, Alkateari hitza eskatu ahal izango diote Udalbatzari aholkuak emateko.

4.- 7/1985 Legearen 72. artikulua aipatzen dituen elkarte edo Entitateetako batek azalpen bat egin nahi badu Udal Batzarraren aurrean eguneko gai-zerrendako punturen bati buruz, horren alde aurreko administrazio-izapideetan interesatu gisa esku hartu duelako, Alkateari eskatu beharko dio bilkurari ekin aurretik. Haren baimenarekin, eta ordezkari bakar baten bitartez, bere iritzia eman ahal izango du Alkateak adierazten duen denbora-epean, eguneko gai-zerrendaren barruan sartutako proposamena irakurri, eztabaidatu eta bozkatu aurretik.

## **68. artikulua.- Udal Batzarrak eztabaidatutako gaiak bozkatzea.**

1.- Gai baten eztabaida amaitu ondoren, hori bozkatzeari ekingo zaio.

2.- Bozketa hori diktamen edo proposamen osoaren inguruan egingo da, eta ezin izango da horrek eduki ditzakeen puntuetako bakoitzari buruzko bozketarik egin, salbu eta, bozketa hasi aurretik, udalbatzako kideren batek proposaturik, horretarako akordio bat lortzen ez bada Udal Batzarra legez osatzen duten udalbatzako kideen gehiengo absolutuz.

Eztabaidatzen ari diren gaia mozio bat izanez gero, bozketa hori bertako puntu bakoitzari buruzkoa izan dadin, eta ez osotasunari buruzkoa, proposamena egin duen taldeko edo taldeetako bozeramaileak aurrez hala onestea besterik ez da behar.

3.- Bozketari ekin aurretik, Alkateak edo Lehendakariak argi eta laburki azalduko ditu bozketaren baldintzak eta botoa emateko modua.



4.- Bozketari hasiera eman ondoren, ezin daiteke eten inolako arrazoirengatik. Bozketa egin bitartean Lehendakariak ez du hitz egiteko aukerarik emango eta Udalbatzako kideak ezin daitezke Batzar Aretoan sartu edo Batzar Aretotik irten.

5.- Ohiko bozketa amaitu ondoren, zer erabaki den adieraziko du Alkateak edo Lehendakariak.

6.- Bozketa izenduna amaitu eta berehala, Idazkariak zenbatuko ditu emandako botoak, eta ozenki iragarriko du zer emaitza lortu den; hori kontuan izanik, Alkateak edo Lehendakariak zer erabaki hartu den adieraziko du.

### **69. artikulua.- Botoaren izaera eta esanahia.**

1.- Zinegotzietatik norik bere botoa du eta ezin du inork ordezkatu.

2.- Botoaren esanahia baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke, eta Udalbatzako kideek botoa emateari uko egin diezaioke.

3.- Dagokion bozketaren ondorioetarako, gai baten eztabaidari hasiera eman ondoren beren eserlekuetatik alde egin duten eta bozkatzeko unean bertan ez dauden zinegotziak abstenitu egiten direla ulertuko da.

Bozketa egin baino lehen batzar-aretoa itzuli baldin badira, bertan parte hartu ahal izango dute.

4.- Bozketan berdinketa gertatuz gero, berriro egingo da bozketa, eta berdinketak bere horretan jarraitzen badu, Alkatearen edo Lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du.

5.- Bozkatzeko ohiko sistema bozketa arrunta izango da.

Bozketa izenduna egiteko, beharrezkoa izango da udal-talde politiko batek eskaera egitea, bozketa arrunt bidez Udal Batzarraren gehiengo soilak onetsia.

Ezcutuko bozketa pertsonak aukeratzeko edo kargugabetzeko bakarrik erabili ahal izango da, eta TAOALaren 70. artikuluan jasotako kasuan, Konstituzioaren 18.1 artikulua aipatzen duen herritarren funtsezko eskubideari eragiten dioten gaitan.

### **70. artikulua.- Botoaren azalpena.**

Akordioa aldarrikatu ondoren, eztabaidan parte hartu ez duten udal-talde politikoek edo atxikipenik gabeko zinegotziek, edo eztabaidaren ondoren beren botoaren esanahia aldatu



dutenek, botoaren azalpena emateko txanda eska diezaiokete Alkateari.

Esku hartzeko hurrenkera gaien eztabaidarako aurreikusitakoaren arabera finkatuko da.

#### **4. atala. Boto partikularrak eta Zuzenketak.**

##### **1. Azpiatala. Boto partikularrak.**

###### **71. artikulua.- Definizioa.**

Informazio Batzordeak proposatutako diktamenaren aurka bozkatzuz bertako kide batek aurkeztutako aldaketa-proposamena da boto partikularra. Diktamena onesteko unean aurkeztu ahal izango da, eta hala eginez gero, Batzordearen bilkuraren aktan jasoko da, horren oinarriak ere barneratuz, edo bestela, idatziz ere aurkeztu ahal izango da, beranduenez diktamena onetsi eta hurrengo egunean. Idatzi hori Batzordearen Idazkaritzaren aurrean aurkeztuko da, eta hori zein egunetan aurkeztu den agerraraziko da, eta aurkeztu ondoren, diktamenarekin batera joango da.

Boto partikularrak diktamenak baino lehen aztertu eta bozkatuko dira eta, hala egokituz gero, zuzenketak baino lehen.

Boto partikularra aurkeztu duena ez baldin badago Batzarraren bilkuran, boto partikular horrek ez du eraginkortasunik izango.

Boto partikularrak eta zuzenketak batera aurkezten badira, lehenik haien eztabaidatu eta bozkatuko dira. Boto partikularren bat onesten baldin bada, gainerako boto partikularrak eta gai horri buruzko zuzenketak baliogabetuta geratuko dira, eta ez da horiek eztabaidatzeko biderik izango.

##### **2. Azpiatala. Zuzenketak.**

###### **72. artikulua.- Definizioa eta klaseak.**

1.- Erabaki-proposamen bat, proposamen bat, Adierazpen instituzionalaren proposamen bat, Talde bateko Bozerramaileak, atxikipenik gabeko kideek edo zinegotzi batek aurkeztutako mozio bat edo erabaki bat hartzeko ekimena aldatzeko proposamena da zuzenketa.

Zuzenketa aurkeztu ondoren, zuzendu egin daiteke Idazkari Nagusiak horrekin loturik adierazitako muga juridikoetara egokitu dadin.

2.- Zuzenketak osokoak edo partzialak izan daitezke.



Osoko zuzenketak honelakoak izan daitezke:

- aurkezten den proposamenaren aurkako proposamen alternatibo bat.
- erabat baztertzeko proposamen soil bat.
- proposamen hori berriro aztertu dadin itzultzeko proposamen bat.

Zuzenketa partzialak honelakoak izan daitezke:

- alderdi batzuk ezabatzekoak.
- edukiaren zati bat aldatzekoak.
- edukia gehitzekoak.
- transakzionalak.

Zuzenketa partzialetan aldatu edo ordezkatu beharreko testu-zatia hitzez hitz jaso beharko da, baita amaieran izango duen erredakzio berria ere.

Erabaki bat hartzeko ekimenen egileek, halaber, arlo teknikoko zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte.

### **73. artikulua.- Zuzenketa transakzionalak.**

Aurkeztutako zuzenketa baten edo batzuen gaineko transakzioa zenbait Bozeramaileraren edo Bozeramaile batzuen eta atxikipenik gabeko zinegotziren baten arteko akordioa da, Udal Batzarrari zuzenketaren xede izan den proposamenaren alderdi jakin bati buruzko iritzia eskatu zaion zuzenketaren behin betiko proposamenarekin lotua.

Zuzenketa baten gaineko transakzioak hori proposatu duenaren adostasuna eskatzen du.

### **3. Azpiatala. Zuzenketak izapidetzea eta eztabaidatzea.**

#### **74. artikulua.- Izapidetzea.**

1.- Zuzenketak Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, Alkatezari zuzendutako idatzi baten bidez, Udal Batzarraren bilkura egiteko finkatutako ordua baino ordu bete lehenago gutxienez, eta sustatzaileak horren fotokopia bat igorri beharko die, aurrerapen berberaz, Alkateari eta gainerako zinegotziei. Erregistro Orokorra itxita baldin badago, Idazkari Nagusiari emango zaio, eta hark izapidetuko du, aurkeztu den eguna eta ordua agerraraziz.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren kaltetan izan gabe, in voce zuzenketak onartuko dira, baina bakar-bakarrik, transakzionalak badira edo hutsegite teknikoak zuzentzeko helburua



badute.

Proposamengilea etortzen ez bada, Udal Batzarrak ez du aztertuko zuzenketa hori, bilkuran bertan dagoen Udalbatzako beste kide batek horren ardura hartu ezean.

Bozketa egin aurreko edozein unetan, zuzenketa izenpetu zuen pertsonak erretiratu egin ahal izango du.

2.- Aurrekontu orokorren proiektuaren aurka edo udalaren eskumeneko izaera orokorreko xedapenen aurka aurkeztutako zuzenketetan, izapidetzeari eta eztabaidatzeari dagokionez, Araudi honetan horrelakoekin loturik xedatutakoa beteko da.

### **75. artikulua.- Zuzenketak eztabaidatzea.**

1.- Zuzenketen inguruko eztabaida proposamengilearen esku-hartzearekin hasiko da, eta zuzendutako proposamena eztabaidatu aurretik burutuko da, hura ezagutu ondoren. 67. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik burutuko da eztabaida.

2.- Aurkeztutako zuzenketak aurkeztutako hurrenkeraren arabera aztertuko dira, hurrengo puntuan xedatutakoa errespetatuz. Zuzenketa hori zuzendutako proposamenaren egileak aurkezten badu, horixe aztertuko da lehenik.

3.- Osoko zuzenketak aztertuz hasiko da eztabaida, eta eztabaida amaitu ondoren bozkatuko dira. Osoko zuzenketa bat onesten baldin bada, bertan proposatzen denaren arabera, automatikoki mahai gainean geratuko da gai hori, espedientea artxibatu eta amaitu dadin edo diktamen berri bat egin eta zuzenketak aurkeztu daitezzen.

4.- Jarraian, zuzenketa partzialak eztabaidatuko dira, banan-banan. Zuzenketa partzial bakoitzaren eztabaida amaitu ondoren, bozkatu egingo da. Hori onesten baldin bada, aurkeztutako proposamena zuzentzeari ekingo zaio.

Zuzenketa partzial bat onesteak berarekin ekarriko du alderdi beraren inguruan aurkeztu diren gainerako zuzenketa partzialak baliogabetzea, eta beraz, ez dira aztertuko.

5.- Zuzenketak amaitu ondoren, lortzen den proposamena eztabaidatu eta bozkatu egingo da.

6.- Proposamengile batek aurkeztutako osoko zuzenketak edo zuzenketa partzialak, hark hala eskatuta edo aldeztu aurretik baimena emanda, batera eztabaidatu eta/edo bozkatu ahal izango dira.





Zuzenketen zatiak ezingo dira bozkatu, Erregistroan aurkeztu diren unean zuzenketa jasotzen duen agirian bertan idatziz horrela zehaztu ezean.

## **5. atala. Mozioak.**

### **76. artikulua.- Xedea.**

Udal Batzarraren eskumenekoa den eta zuzenean organo horrek ezagutu eta ebatzi dezan aurkezten zaion gai bati buruzko proposamena da mozioa.

Mozioen helburua, oro har, xede jakin bat duten jarduera batzuk abiarazi beharrari buruz Udal Batzarrak bere iritzia ematea da. Udal Batzarrak onetsitako mozioak ofizioz espediente bat abiarazteko balio izango du, eta hori izapidetu ondoren, Udal Batzarrak ebatzi beharko du, dagokion batzordeak diktamen bat egin ondoren, proposatzen denak duen berezko izaera dela eta horrelako izapidetik behar ez denean izan ezik.

### **77. artikulua.- Izapideak.**

1.- Mozioak zinegotzi batek edo udal-talde politiko batek aurkeztu ahal izango ditu, baita edozein pertsonak, entitatek edo elkartek ere.

Mozioek aurkezten dituenaren sinadura eraman behar dute, edo bestela, Taldeko Bozeramailearena.

2.- Hurrengo apartatuan aurreikusten denaren kaltetan izan gabe, mozioak hurrengo bilkuraren eguneko gai-zerrendan sartu ahal izan daitezten Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira bilkura egin baino hiru lanegun lehenago gutxienez; horrela egin ezean, hurrengo bilkuran barneratuko dira.

3.- Ohiko bilkuretan, bilkuraren deialdia egin ondoren aurkeztu ahal izango dira mozioak, bilkura hasi baino ordubete lehenago arte, baina horrelakoetan, Udal Batzarrak eztabaidatu ahal izateko, beharrezkoa izango da alde aurretik horren premiazkotasuna adieraztea, Udalbatzako kideen gehiengo absolutuaren botoarekin.

4.- Salbuespenezko kasuetan, ohiko bilkura hasi ondoren ere mozioak aurkeztu ahal izango dira, eta horrelakoak aztertze beharrezkoa izango da bi udal-talde politikok abalatu egotea eta alde aurretik horren premiazkotasuna adieraztea, Udalbatzako kideen gehiengo absolutuaren botoarekin.

5.- Mozioak aurrera egiten badu eta beharrezkoa bada dagokion batzordeak aztertzea, hartutako erabakiaren ziurtagiri hau igorriko zaio. Batzordeko Lehendakariak beharrezko



neurriak hartu beharko ditu, ahal izanez gero eta aurrez diktamena eginik, Udal Batzarraren hurrengo bilkurako eguneko gai-zerrendan puntu hori sartu ahal izan dadin. Barneratzea ezinezkoa izan baldin bada, Batzordeko Lehendakariak hori barneratzea eragotzi duten arrazoiak zein izan diren jakinaraziko du.

6.- Alkatetzaren edo Tokiko Gobernu Batzordearen edo, hala egokituz gero, bertako delegatuen eskumeneko gaiei buruz ere aurkeztu ahal izango dira mozioak. Kasu horretan, mozioa onesten baldin bada, ez da loteslea izango ebazpena emateko eskumena duen organoarentzat, eta gomendioaren balioa edukiko du bakar-bakarrik.

7.- Partikularrek eta elkarteek aurkeztutako mozioak kontuan hartzeko eta aztertzeko, adierazpen instituzionaletarako aurreikusitako prozedura bera bete eta baldintza berberak eskatuko dira.

8.- Eguneko gai-zerrendan sartutako mozioa eztabaidatu egingo da. Talde proposamengileak gehienez ere hamabost minutuz hasierako azalpen bat egin ondoren, horri zuzenketak aurkeztu dizkioten udal talde politikoek parte hartuko dute gehienez ere hamar minutuz, beren ordezkari-hurrenkerari jarraiki, eta gero, horrelakorik aurkeztu ez dutenek. Azkenik, bost minutuko erantzunen txanda bat izango du udal talde bakoitzak. 67. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik burutuko da eztabaida.

Esku-hartze guztiak amaitu ondoren, jatorrizko proposamena bozkatu egingo da, talde proposamengileak onartutako zuzenketak gehituta.

Proposamen hori onartzen baldin bada, osoko zuzenketa guztiak baliogabetuta geratuko dira eta zuzenketa partzialak bozkatzeari ekingo zaio, ondorengo hurrenkerari jarraiki: lehenik eta behin, ezabatzeko zuzenketak, gero gehitzeko zuzenketak eta, azkenik, aldatzeko zuzenketak. Zuzenketa partzialen bat onesten baldin bada, jatorrizko proposamena, gehikuntza horiek barneratuta, behin betiko bozkatuko da; onartzen ez bada, lehen bozketaren emaitzari eutsiko zaio.

Jatorrizko proposamena ezetsi egiten bada, baliogabetu egingo dira zuzenketa partzial guztiak eta osoko zuzenketak bozkatzeari ekingo zaio; Erregistro Orokorrean aurkeztutako hurrenkera kontuan izanik egingo da bozketa hori.

Osoko zuzenketak edo zuzenketa partzialak, aurkezten dituenak hala eskatuz gero edo alde aurretik baimena emanaz gero, batera eztabaidatu eta/edo bozkatu ahal izango dira. Ezingo dira zuzenketen zatiak bozkatu, Erregistro Orokorrean aurkeztu diren unean zuzenketa jasotzen duen agirian bertan idatziz horrela zehaztu ezean.



## **6. atala. Adierazpen Instituzionalak.**

### **78. artikulua.- Xedea.**

Adierazpen instituzionalak Udal Batzarraren iritziaren adierazpenak dira, Udalaren ordezkari politikorako organo goren gisa harturik, eta politika, gizarte, etika, ekonomia, erakunde eta beste arlo batzuetako interes orokorreko gaiekin loturik daude; horiek onesteak ez du aparteko exekuziorik eskatzen, hartutako erabakia interesatuta egon daitezkeen pertsona, elkarte eta erakundeei jakinarazte hutsetik haratago.

### **79. artikulua.- Izapideak.**

- 1.- Adierazpen instituzionalaren eskaera edo proposamena Erregistro Orokorrean aurkeztu behar da.
- 2.- Zinegotziek, udal-talde politikoek eta edozein pertsonak, erakundek edo elkarteek aurkeztu ahal izango dituzte adierazpen instituzionalen eskaera edo proposamenak.
- 3.- Zinegotziek eta udal-talde politikoek eskabideak aurkeztu ahal izango dituzte, mozioetarako aurreikusitako baldintza beretan eta betebeharrak berberekin.
- 4.- Beste pertsona edo erakunde batzuek aurkezten dituztenek aurkezlearen nortasuna eta IFK gehitu beharko dute, eta erakunde juridikoa izanez gero, ordezkari gisa jarduten duenaren nortasuna eta IFK; jakinarazpenetarako helbidea; eskatzailearen edo ordezkariaren sinadura edo bere borondatearen benetakotasunaren egiaztatpena.
- 5.- Eskabide horiek Udaleko zinegotzi edo udal-talde politiko ez diren pertsonak, erakundeek edo elkarteek aurkezten dituztenean, Udal Batzarrak horiek aztertu ditzan, ondorengo arau hauek beteko dira:
  - a) Eskabide hori Udaleko zinegotziren batek edo udal-talde politikoren batek abalatzeko badu, abal-emaileak horren edukia bere gain hartzen duela ulertuko da, eta hark aurkeztu izan balu bezala aztertuko da.
  - b) Eskabideak ez badu horrelako abalik, Bozeramaileen Batzordean aurkeztuko da, eta hark, botoen gehiengo soilez, horri buruzko ebazpena emango du.
- 6.- Adierazpen horiek alde batera utzirik, Alkateak, bere ekimenez edo edozein zinegotziren ekimenez, udalbatzak kortesia-gaiei buruzko eta gizarte- edo protokolo-erabilerei buruzko adierazpenak egin ditzala proposatu ahal izango du edozein eratako bilkuretan.



## **7. atala. Galdera-eskariak.**

### **80. artikulua.- Eskariak.**

Udalaren eskumeneko arlo batean, gobernu-taldeari edo bertako kideren bati zuzendurik jarduteko proposamen bat egitea da eskaria.

Udalbatzako kide guztiek edo udal-talde politikoez beren bozeramaileen bitartez proposatu ahal izango dituzte eskariak.

Ahoz edo idatziz egin ahal izango dira eskariak, eta oro har, hurrengo bilkuran eztabaidatuko dira, aurkezten diren bilkura berean ere egin daitezkeen arren, baldin eta hura zuzentzen zaion Alkateak edo zinegotziak egoki dela jotzen badu.

Eskariak egiten direnean, galderak egiteko aurreikusitako arau berberak aplikatuko dira, eta Alkateak ez du eskariak izapidetzeko baimenik emango galderen kasuan aurreikusitako inguruabar berberak daudenean.

Eskaria aurkeztera edo irakurtzera eta proposamengileak hori justifikatzera mugatuko da eztabaida, dagokionak erantzutera, proposamengileak berriro esku hartzera, nahi izanez gero, eta gobernu-taldeko kideak behin betiko erantzuna ematera.

### **81. artikulua.- Galderak.**

Gobernu-taldeari, bertako kideren bati edo arloko zinegotzi arduradunari bakoitzaren ardurapeko kudeaketa politikoa edo administratiboa loturik egindako galdera edo interpelazioa da galdera. Udalbatzako kide guztiek edo udal-talde politikoez beren bozeramaileen bitartez egin ditzakete galderak.

Aztertu beharreko gaiarekin zuzenean loturik dagoen justifikazio labur bat jaso dezake galdera horrek, dibagaziorik gabe eta kortesia-arauean aurkako hitzik edo kontzepturik gabe, eta galderaren formulazioa jaso beharko du.

Interpelatu bati baino gehiagori zuzendutako galderarik ez da egingo.

Bilkura batean ahoz egindako galderei, oro har, hurrengo bilkuran erantzungo die galderaren hartzaileak, baina dena den, galdera jaso duenak berehala erantzun ahal izango die, nahi izanez gero.

Idatziz egindako galderei hurrengo bilkuran erantzungo die galderaren hartzaileak, nahiz eta galdera jaso duenak berehala erantzun ahal izango dien.



Hogeita lau orduko aurrerapenaz idatziz egindako galderei, oro har, bilkura horretan bertan erantzungo zaie, edo bestela, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, hurrengoan.

Galdera hori honetara mugatuko da: galdera jakinarazi edo irakurriko da, proposamengileak justifikazio labur bat eskainiko du, zuzentzen zaion Udalbatzako kideak erantzun egingo dio edo, Gobernu Taldeari zuzentzen baldin bazaio, Alkateak erabakitzen duenak erantzungo dio, proposamengileak aukera izango du, erantzuna kontuan izanik eta nahi baldin badu, berriro galdetzeko eta hasieran erantzun duen udalbatzako kideak behin betiko erantzungo dio.

Galdera bakoitzaren garapenak gehienez ere zortzi minutu iraungo du, esku-hartzaile bakoitzak lau minutu izango baititu, ondorengo txanda hauetan libreki banatuak: galderaren aurkezpena, erantzuna, erreplika eta duplika.

Alkateak ez du onartuko galderarik izapidetzea ondorengo kasu hauetan:

- a) Udalaren eskumeneko eremutik kanpoko gaiei buruzkoak direnean.
- b) Galdera horiek egiten dituenaren edo beste edozein pertsona bereiziren interes pertsonal soilerako direnean.
- c) Beren edukian kortesia-arauen aurkako hitzak edo kontzeptuak jasotzen dituztenean.
- d) Beren justifikazioan galdetu beharreko gaiarekin harreman zuzenik ez duten dibagazioak jasotzen dituztenean.

## **8. atala. Bilkuretako ordena eta interes-gatazka.**

### **82. artikulua.- Bilkuretako ordena.**

1.- Alkateak Udalbatzako edozein kide ohartarazi ahal izango du ondorengo kasu hauetan:

- a) Udalbatzaren edo bertako kideen, Erakunde Publikoen edo beste edozein pertsona edo entitateren izen onarentzat iraingarri diren hitzak edo kontzeptuak jaulkitzen dituenen.
- b) Etenak sortzen dituenen edo, beste edozein modutara, bilkuren ordena aztoratzen duenean.
- c) Hitzaz baliatu nahi duenean, horretarako baimenik eman gabe edo hitzaz baliatzeko aukera kendu ondoren.

2.- Bilkura berean hiru aldiz ohartarazten zaionean, bigarrenengoan hirugarren ohartarazpen batek dituen ondorioak jakinarazi ondoren, bilkura egiten ari diren lokala utz dezala agindu ahal izango dio Lehendakariak, kanporatze hori eraginkorra izan dadin egoki jotzen dituen neurriak hartuz.



### **83. artikulua.- Interes-gatazketan eztabaidatzetik eta bozkatzetik abstenitzea.**

7/1985 Legearen 76. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, Udalbatzako kideren batek eztabaidan eta bozketan parte hartzetik abstenitu behar baldin badu, Batzar Aretoa utzi beharko du gai hori eztabaidatzen eta bozkatzeko den bitartean, udalbatzako kide izan duen jarduera eztabaidatzen ari direnean izan ezik, horrelakoetan bertan egoteko eta bere burua defendatzeko eskubidea izango baitu.

## **V. KAPITULUA. TOKIKO GOBERNU BATZORDEA.**

### **1. atala. Izaera, osaera eta eginkizunak.**

#### **84. artikulua.- Izaera.**

- 1.- Tokiko Gobernu Batzordea Alkateak eta berak izendatutako zinegotziek osatzen dute.
- 2.- Alkateak izendatzen eta libreki bereizten ditu Tokiko Gobernu Batzordeko kideak.
- 3.- 2. zenbakiak Alkatetzarentzat dituen ahalmenen kaltetan izan gabe, Alkatea hautatu eta hurrengo hamar eguneko epearen barruan erabakia hartuko da Tokiko Gobernu Batzordea. Horrekin loturik Alkateak egiten duen edozein izendapen Udal Batzarrari jakinaraziko zaio hamar eguneko epearen barruan.
- 4.- Izaera orokorrez, bilkurak ez dira publikoak izango. Batzorde horreko kideak baino ezin daitezke bilkuretara joan, Alkateak, gai jakinen bat aztertzeko edo horri buruz informatzeko, edozein zinegotzi edo udal teknikari bertan izatea egokia dela iritzi ezean,
- 5.- Aurreko puntuan ezarritakoa hala izanik ere, eguneko gai-zerrendaren barruan Udal Batzarrak eskuordetutako eskumenekin loturiko gaiak jasotzen dituzten bilkurak publikoak izango dira.

#### **85. artikulua.- Osaera.**

- 1.- Alkateak Tokiko Gobernu Batzordeko kide izendatu ditzakeen zinegotzien kopurua ezin daiteke izan Udalbatzako kideen legezko kopuruaren heren bat baino handiagoa. Zenbaketaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko zinegotzien kopuru osoa hiruren artean zatituz lortzen diren dezimalak.
- 2.- Udalbatzako Idazkariak egingo ditu Idazkari-lanak.



## **86. artikulua.- Eginkizunak.**

Tokiko Gobernu Batzordearen eginkizunak hauek dira:

- a) Alkateari laguntzea hark dituen eskumenak gauzaten.
- b) Alkateak edo beste udal organo batek eskuordetzen dizkioten edo legeek esleitzen dizkioten eginkizunak.

## **2. atala. Funtzionamendua.**

### **87. artikulua.- Bilkurak eta deialdia.**

1.- Alkateak legegintzaldi bakoitzaren hasieran dekretu bidez finkatzen duen maiztasunarekin egingo ditu ohiko bilkurak Tokiko Gobernu Batzordeak, nahiz eta, arrazoi justifikaturen bat dela eta, legegintzaldian barrena maiztasun hori aldatu ahal izango duen. Dekretu horretan bertan finkatuko dira eguna eta ordua.

2.- Tokiko Gobernu Batzordeak ez-ohiko eta premiazko bilkura egingo du, Alkateak izaera horrekin deialdia egiten duenean.

3.- Deialdia egiten denetik bilkura egiten denera ezin daitezke hogeita lau ordu baino gutxiago igaro, ez-ohiko eta premiazko bilkuretan izan ezik, eta horrelakoetan, eguneko gai-zerrendan sartutako gaiak ezagutzen hasi baino lehen, premiazotasuna adierazi beharko da bertako kideen gehiengoak horren alde erabakiz.

4.- Eguneko gai-zerrenda Udaletxeko iragarki-taulan eta udalaren webgunean ikusgai jarriko da.

Halaber, horren barruan sartuta ez dauden udalbatzako gainerako kideei eskainiko zaie, bai pertsonalki eta bai bere Taldearen bitartez ere.

5.- Edozein bilkuratan gai berriak barneratu ahal izango dira, bertako kideen gehiengo soilak aurrez hala erabakitzen badu.

### **88. artikulua.- Bilkurak egiteko quoruma.**

Tokiko Gobernu Batzordea balio osoz eratu dadin, ezinbestekoa da bertako kideen gehiengo absolutua bertaratzea. Quorumik ez badago, bigarren deialdian eratuko da lehenengorako adierazitakoa baino ordubete geroago, eta aski izango da bertako kideen heren bat bertaratzea eta, edonola ere, 3 baino txikiagoa ez den kopuru bat.



### **89. artikulua.- Erabakiak hartzea.**

Bertako kideen gehiengo soilaz hartuko dira erabakiak.

### **90. artikulua.- Akta.**

Egindako bilkuren akta idatziko da, eta bertan, bertaratuak, hartutako erabakiak, bozketen emaitzak eta, laburki, berariaz hala eskatzen dutenen boto-azalpenak jasoko dira.

## **VI. KAPITULUA. INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRAK.**

### **1. atala. Izaera, osaera eta eginkizunak.**

#### **91. artikulua.- Izaera.**

1.- Informazio Batzorde Iraunkorrak organo osagarriak dira, ebazteko eskumenik gabeak, Udalbatzako kideek bakar-bakarrik osatuak.

2.- Informazio Batzorde Iraunkorrak izaera orokorrean eratzten dira, eta horien artean banatzen dira Udal Batzarrean aztertu beharreko gaiak. Horien kopurua eta hasierako izendapena, baita udalbatzaren agintaldian zehar horietan egiten den edozein aldaketa ere, Alkateak proposatu ondoren Udal Batzarrak hartutako erabaki baten bidez erabakiko dira, eta ahal den neurrian, udalbatzaren zerbitzuak antolatuta dauden arlo handien kopuruarekin eta izendapenarekin egokitu daitezela saiatuko dira.

#### **92. artikulua.- Osaera.**

1.- Udal Batzarrari dagokio, Alkateak proposatu ondoren, Informazio Batzorde Iraunkorretako kideen kopurua zehaztea.

2.- Udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek eskubidea izango dute, batzorde horietako partaide diren zinegotzien bitartez, Informazio Batzorde horietan parte hartzeko.

Udalbatzan ordezkariak duen talde politiko desberdinen artean dagoen proportzionaltasunaren arabera osatuta egongo da Batzorde bakoitza.

Talde bakoitzaren ordezkari gisa batzorde bakoitzeko kide izan behar duen Udalbatzako kide kopuruaren atxikipen zehatza bertako Bozeramaileak egingo du Alkateari zuzendutako idatzi baten bidez, eta Udal Batzarrari ere igorriko zaio idatzi hori. Era berean, hori osatzen duen Taldeko kide kopuruaren pareko ordezkari kopuru bat izendatu ahal izango da, eta horietako edozeinek titularretako edozein ordezkari ahal izango du.





3.- Atxikipenik gabeko zinegotziek nahi duten Informazio Batzordeetako kide izan daitezke.

4.- Informazio Batzorde Iraunkorretako Idazkaritza-lanak udal langile batek egingo ditu; langile horrek legeak eskatutako betebeharrak bete beharko ditu, eta Alkateak izendatu beharko du Udaleko Idazkari Nagusiak proposatu ondoren.

### **93. artikulua.- Lehendakaritza.**

Alkatea da Informazio Batzorde Iraunkor guztietako berezko lehendakaria; hala eta guztiz ere, Udalbatzako edozein kideri libreki eskuordetu ahal izango dio lehendakaritza eraginkorra.

Halaber, ordezko bat izendatu ahal izango du Batzorde bakoitzeko lehendakari eraginkorrik ez badago, kanpoan bada, gaixo badago edo ezinduta aurkitzen den kasuetarako.

### **94. artikulua.- Eginkizunak.**

1.- Informazio Batzorde Iraunkorren eginkizuna da Udal Batzarrak erabaki beharko dituen gaien inguruan aztertzea, txostenak egitea edo aholkuak eskaintzea, baita Tokiko Gobernu Batzordearenak edo Alkatetzarenak ere, Udal Batzarrak eskuordetutako eskumenak betez jarduten dutenean.

2.- Era berean, Tokiko Gobernu Batzordearen eta Alkatearen berezko eskumena diren gaien inguruko informazioa emango dute, haiek berariaz hala erabaki dutelako horrelakoak ezagutarazi dizkietenean.

### **2. atala. Funtzionamendua.**

### **95. artikulua.- Bilkurak eta deialdia.**

1.- Informazio Batzorde Iraunkorrek Udal Batzarrak erabakitzen duen maiztasunarekin egingo ditu bilerak, eta orduak ere Udal Batzarrak finkatuko ditu. Ohiko deialdi guztiak ohiko Udal Batzarra egin aurreko egunetan metatuta egin daitezela ahaleginduko dira, beharrezkoa den dokumentazioa prestatzeko behar hainbateko denborarekin.

2.- Bilkuren deialdiari eta erregimenari dagokionez, Udal Batzarrarentzat aurreikusitako arau berak aplikatuko dira, kapitulu honetan jasota datozen zehaztasunekin.

3.- Eguneko gai-zerrenda Udaletxeko iragarkien taulan eta udalaren webgunean jarriko da ikusgai. Halaber, hura osatzen ez duen udalbatzako gainerako kideei ere eskainiko zaie, bai pertsonalki eta bai beren Taldearen bitartez.



4.- Herritarren interes orokorrak edo sektorialak defendatzeko Udalerrian eratu diren elkarteetako edo entitateetako ordezkariak ere deitu ahal izango zaie Informazio Batzordeen bilkuretara etor daitezten. Halaber, Informazio Batzordeen diktamenaren xede diren gaietan interes zuzena duten eta horrela eskatzen duten entitate edo norbanakoak ere etorri ahal izango dira bilkura horietara.

Lehendakariaren ekimenez edo Batzordeko kideren batek hala eskatuta, Batzordeko kide ez diren bertaratuetakoren batek esku har dezala baimendu ahal izango du, informazioa zabaltzearen edo zalantzak argitzearen. Ezingo dute eztabaidetan beste inoiz esku hartu eta horiek esku hartzen dutenean ezingo dute laidorik, hitz iraingarririk edo gutxiesgarririk jaulki inolako pertsonaren edo erakunderen aurka.

#### **96. artikulua.- Bilkurak egiteko quoruma.**

Batzordeak balio osoz eratu daitezten ezinbestekoa da bertako kideen gehiengo absolutua bertaratzea. Quorumik ez badago, bigarren deialdian eratuko da, lehenengorako adierazitakoa baino ordubete geroago, eta aski izango da bertako kideen heren bat bertaratzea, eta edonola ere, 3tik behera izango ez den kopuru bat.

#### **97. artikulua.- Diktamenak ematea.**

1.- Informazio Batzordeen bileretako emaitzak diktamen, proposamen edo antzeko beste edozein modutara adieraziko dira, baina inola ere ez dira erabaki gisa azalduko.

2.- Informazio Batzordeak diktamena egin aurretik, administrazio-unitateak edo arloko funtzionario arduradunak egindako txostenaren berri eduki beharko da haren bitartez.

3.- Diktamenak gehiengo soilez hartuko dira, boto haztatu bidez, eta berdinketarik gertatuz gero, Lehendakariak erabakiko du bere kalitatezko botoarekin, eta horiek gauzatu diren bilerako lehendakari izan denaren sinadura eramango dute.

4.- Diktamenarekin ados ez dagoen bokalak bere aurkako botoa ager dadila eskatu ahal izango du, edo bere boto partikularra eman, Udal Batzarraren aurrean defendatu dadin.

#### **98. artikulua.- Akta.**

Bilkura horien akta idatziko da, eta bertan, bertaratuak, hartutako erabakiak, bozketen emaitzak eta, laburki, berariaz hala eskatzen dutenen boto-azalpenak jasoko dira.



## **99. artikulua.- Gai jakin batzuk elkarrekin aztertzea.**

Alkateak, gai jakin batekin loturik, bi Batzordek edo gehiagok elkarrekin aztertu dezatela erabaki ahal izango du, prozeduran atzerapenak gerta daitezela eragoztearren.

## **VII. KAPITULUA. KONTUEN BATZORDE BEREZIA.**

### **100. artikulua.- Kontuen Batzorde Berezia.**

1.- Kontuen Batzorde Berezia, nahitaez izan beharrekoa apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 116. artikuluan xedatutakoaren arabera, izaera bereziko Informazio Batzorde bat da, eta Udala osatu ondorengo hilaren barruan eratu beharko da, agintaldi bakoitzaren hasieran.

2.- Udaleko talde politikoetako zinegotziek osatuko dute eta alkateak izendatuko ditu talde bakoitzak egindako proposamenaren arabera.

Alkatea izango du buru, edo horrek eskuordetutako zinegotzia.

3.- Tokiko Erakundearen Kontuetako Batzorde Berezia urteko kontuei buruzko txosten bat egin beharko du ekainaren 1a baino lehen, batzorde hori Udalbatza osatzen duten Udaleko Talde Politiko desberdinetako kideek osatuko dute, eta kontu horiek jendaurrean jarri beharko dira Udalbatzak onetsi baino lehen, horien aurka erreklamazioak, eragozpenak edo oharra egin ahal izateko. Eta hori horrela izanik ere, Kontuetako Auzitegiaren aurrean kudeaketa ekonomikoan eta onetsitako kontuetan irregulartasunak izan direla salatu ahal izango da.

4.- Kapitulu honetan aurreikusita ez dagoenerako Informazio Batzorde Iraunkorretako funtzionamenduari buruzko xedapenak aplikatuko dira.

5.- Udalbatzaren erabakiz Batzorde horren eginkizunak Informazio Batzorde Iraunkorretakoren batean sartuta gera daitezela ebatzi ahal izango da.

## **VIII. KAPITULUA. BOZERAMAILEEN BATZORDEA.**

### **1. atala. Izaera, osaera eta eginkizunak.**

#### **101. artikulua.- Izaera.**

Bozeramaileen Batzordea eztabaidatzeko eta kontsultarako organo bat da. Alkatea edo horrek eskuordetutako zinegotzia izango da buru eta Udaleko Talde Politikoetako bozeramaileek osatuko dute, edo horien lekuan, dagozkien ordezkioek eta Udaleko Idazkari



Nagusiak. Bozeramaileen Batzordeko kide izaterik ez dute izango atxikipenik gabeko zinegotziek.

### **102. artikulua.- Osaera eta eraketa.**

Alkate-Lehendakariaren ebazpenaren bidez eratuko da Bozeramaileen Batzordea, hori osatuko duten kideen izendapena gauzatu bezain laster. Osaeraren aldaketak izapidetze horretara egokituko dira.

### **103. artikulua.- Bozeramaileak izendatzea.**

Horretarako, Udaleko Talde Politikoetako bakoitzak bere bozeramailea eta horren ordezkoa izendatuko ditu, izendapen hori gauzatu bezain laster Erregistro Orokorrean aurkeztuko den gutunaren bidez. Osaeraren aldaketak izapidetze horretara egokituko dira.

### **104. artikulua.- Eginkizunak.**

Horren eginkizunak honakoak izango dira:

- a) Alkateari aholkuak ematea, horrek hala eskatzen duenean.
- b) Izaera instituzionaleko erabakiak hartzea, gobernu-organoen eskuduntzak kaltetu gabe, eta horren osakerak eskatzen duen ordezkartitzarekin.
- c) Egiten den hurrengo udalbatzarreko gai-zerrendan herritarrek, erakundeek, elkarteek eta abarrek aurkeztu dituzten adierazpen hutseko erabaki-proposamenak sartzeko proposamena egitea, Udaleko Talde Politikoren batek edo atxikipenik gabeko zinegotziren batek bere gain hartu ez baditu behintzat.

## **2. atala. Funtzionamendua.**

### **105. artikulua.- Deialdia.**

Lehendakariaren beraren ekimenez, Alkateak eskatuta edo Taldeko gutxienez bi bozeramailearen eskabide arrazoituaren bidez elkartuko da beti.

Gutxienez 48 orduko aurrerapenarekin egingo da deialdia, presazko bilkuretan izan ezik.

Deialdia egiteko Udalbatzarraren deialdia egiteko aurreikusita dauden baliabide berak erabiliko dira. Presazko bilkuren kasuan beharrezko den edozein baliabide erabili ahal izango da, Batzordeko kideek deialdiaren berri izan dezaten.



### **106. artikulua.- Bilkura egiteko quoruma.**

Bozerramaileen Batzardea behar bezala eratuta dagoela ulertuko da Lehendakaria eta Idazkari jauna, edo horien ordezkariak, bertan izateaz gain, bere kideen erdiak eta bat gehiago bertaratu direnean, eta horiek, aldi berean, beren boto haztatuarekin, Udalbazarreko kideen legezko kopuruaren erdia gutxienez ordezkatzeko dutenean. Quorum horrek saio guztian iraun beharko du.

### **107. artikulua.- Erabakiak hartzea.**

Bozerramaileen Batzardeak erabakiak hartu behar dituen kasuetan, erabakiak boto haztatu bidez hartuko dira.

Lehendakariak, Udaleko bere Talde Politikoko Bozerramailea ez baldin bada behintzat, eta Idazkariak, edo horien ordezkariak, ez dute botorik izango.

Berdinketa gertatzen bada, lehendakariaren udal-talde politikoko bozerramailearen kalitateko botoarekin erabakiko da.

### **108. artikulua.- Akta.**

Bilkura horietako akta jaso beharko da, eta bertaratu direnak, hartu diren erabakiak eta botazioetako emaitza jasoko dira bertan, eta modu laburrean, berariaz horrela eskatzen dutenen boto-adierazpenak.

## **IX. KAPITULUA. INFORMAZIO BATZORDE BEREZIAK.**

### **109. artikulua.- Izaera.**

Udalbatzarrek gai zehatz baterako eratzea erabakitzen dituenak dira Informazio Batzarde bereziak, horien edozein motako ezaugarri bereziak kontuan hartuta.

Batzorde horiek automatikoki desagertzen dira, horien helburua zen gaiari buruzko informazioa behin eman ondoren, baldin eta horiek sortzeko hartu zen erabakian bestelakorik adierazten ez bada. Era horretako batzardeak eratzea Udaleko Talde Politiko batek edo udalbatzako edozein kidek proposatu dezake. Proposamenean Batzardearen izena eta hori eratzea proposatzeko dagoen arrazoia azaldu beharko dira.



### **110. artikulua.- Erregimena.**

Proposamena egin duenak horren funtzionamendu-erregimena eta horren buru izango den udalbatzako kidearen izena adierazi ahal izango ditu. Gai horiei buruzko inolako proposamenik egiten ez bada, informazio batzorde iraunkorretan aplikagarri diren xedapen berberekin arautuko da Batzordea, eta horren lehendakaria izendatzea Alkatearen ardura izango da.

Batzorde bereziak eratzeko aurkezten diren proposamenak ez dira inongo Batzorde iraunkorretan aztertu beharrekoak izango.

## **V. TITULUA. ARAUAK ONESTEKO PROZEDURA.**

### **I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.**

#### **111. artikulua.- Aplikazio-eremua.**

Honako titulua Ordenantzak, Araudiak eta izaera orokorreko gainerako xedapenak prestatzeko prozedurari aplikatuko zaio, eta baita horien aldaketei ere, Aurrekontuak izapidetzeari eta onesteari dagokionez titulu horretan aurreikusitakoan izan ezik. Aurreikusita ez dagoen guztian, Araudi honetan izaera orokorrarekin jasota dauden xedapenak aplikatuko dira.

#### **112. artikulua.- Araugintza-ekimena.**

1.- Udal arauak onesteko ekimena honakoari dagokio:

- a) Alkateari.
- b) Tokiko Gobernu Batzordeari.
- c) Udaleko Talde Politikoei eta atxikipenik gabeko zinegotziei.
- d) Herri-ekimenari.

#### **113. artikulua.- Epeak.**

1.- Alkateak, Bozera maileen Batzordeari galdetu ondoren, titulu honetan ezarrita dauden epeak luzatzea edo murriztea erabaki dezake, hori justifikatzen duen arrazoiren bat badago.

2.- Salbuespenezko kasuetan izan ezik, luzapenak ez dira epearen beste hainbestekotik gorakoak izango, eta murrizketak ezta horren erditik beherakoak ere.



3.- Legez eskatzen diren gutxieneko epeak ere ezingo dira murriztu.

## **II. KAPITULUA. IZAPIDETZEA.**

### **114. artikulua.- Txosten Juridikoa.**

Arrazoiaren azalpena eta dagozkion aurrekariak gehituta proposamena aurkeztu ondoren, txosten ekonomikoa egin ahal izango da hogeita hamar eguneko epean, eta hala behar izanez gero, baita teknikoa eta ekonomikoa ere.

### **115. artikulua.- Proiektuaren dokumentazioa.**

Dagokion administrazio-unitateak prestatutako administrazio-espedientea gehituko zaie proiektuei, eta horrek Aholkularitza Juridikoaren nahitaezko txostena izango du.

### **116. artikulua.- Hastapenezko onespina.**

1.- Araugintza-ekimena behin gauzatu ondoren, proiektua, espedientearekin batera, Batzorde eskudunera igorriko da eta hamar eguneko epea irekiko da zuzenketak aurkezteko Batzordean.

Epe hori ez da irekiko Talde guztiak proiektuarekin ados daudenean. Kasu horretan, zuzenean aurkeztuko dira, Batzordeak irizpena emateko.

2.- Zuzenketak eztabaidatu ondoren, Batzordeak onetsi dituenekin berregingo da proiektua; proiektu berriari buruzko txostena egin eta Udalbatzarrera eramango da hastapenez onesteko.

3.- Udaleko Talde Politikoek eta atxikipenik gabeko zinegotziek, Batzordearen bilkuran egin ez badute, lanegun bateko epearen barruan, idatziz azaldu beharko dituzte zuzenketak; horiek Batzordean eztabaidatu eta bozkatutakoak izango dira, eta txostenean sartu gabe utzi direnez, boto partikularrekin Udalbatzarrean defendatu nahi dituztenak.

4.- Aurreko ataletan aurreikusitakoa hala izanik ere, Udaleko zinegotziek eta Talde Politikoek zuzenketak aurkeztu ahal izango dizkiote Batzordearen txostenari Araudi honetako 72. artikuluan eta ondorengoetan aurreikusitako baldintza berberetan.



### **117. artikulua.- Jendaurrean jartzea.**

- 1.- Hastapenez onesteko erabakian, jendaurrean jartzeko eta interesatuei entzuteko epea irekitzea erabakiko du Udalbatzarrak, tokiko erregimenaren legerian ezarrita dagoen gutxieneko epea errespetatuko duen aldirako.
- 2.- Idazkaritza Nagusiak departamentu eskudunera igorriko du hastapenezko onespeneren Erabakia, eta horrek herritarren erreklamazioak eta iradokizunak jaso eta izapidetuko ditu.
- 3.- Legerian ezarritako baliabideak erabiliz iragartzeaz gain, araugintzako testua Udaleko webgunearen bidez zabalduko da.

### **118. artikulua.- Behin betiko onestea alegazio ezagatik.**

Inolako erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, eta ordu arte behin-behinekoa izan den araua onesteko erabakia behin betiko onesten bada, dagokion departamentuko Buruzagitzak txostena egin eta Idazkaritza Nagusiari igorriko dio, eta horrek egin beharreko kudeaketak egingo ditu Udalbatzarri behin betiko onespeneren berri emateko egiten den hurrengo bilkuran.

### **119. artikulua.- Behin betiko onestea alegazioak daudenean.**

- 1.- Alegazioak, erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu baldin badira, departamentuko Buruzagitzak alegazioen balioespena jasoko duen memoria prestatuko du, eta hori horrela izanik ere aurrez zehaztu daitezkeen txosten teknikoak edo legezkoak eskatu eta igorri ahal izango dira. Memoria horretan irizpen-proposamena jasoko da, Batzordean aztertzeko.
- 2.- Batzordeko Lehendakariak memoria horren kopia bidaliko die Batzordeko kideei, nahi baldin badute zuzenketak aurkeztu ahal izateko bost laneguneko epean.
- 3.- Diktamen-proposamena Batzordean eztabaidatuko da, eta hala egokituz gero, zuzenketak ere bai. Emaizaren arabera, proiektua aldatu egingo da edo ez, eta ateratzen den proiektuari buruzko diktamena egingo da eta Udalbatzarrera igorriko da behin betiko onesteko.
- 4.- Udaleko Talde Politikoek eta atxikipenik gabeko zinegotziek, Batzorde eskudunaren diktamena amaitu eta ondorengo bi egunen barruan, idatziz azaldu beharko dituzte zuzenketak; horiek Batzordean eztabaidatu eta bozkatutakoak izango dira, eta txostenean sartu gabe utzi direnez boto partikularrekin Udalbatzarrean defendatu nahi dituztenak.





## **VI. TITULUA. AURREKONTUAK ONESTEKO PROZEDURA.**

### **120. artikulua.- Erregimena eta lehentasuna.**

Udalaren Aurrekontu Orokorraren proiektua arauak onesteko aurreikusitako prozeduraren bidez izapidetuko da, Titulu honetan ezarritako berezitasunekin.

Udalaren Aurrekontu Orokorra lehentasuna izango du izapidetzeko gainerako administrazio-prozedurekiko.

### **121. artikulua.- Proiektua aurkeztea.**

Udalaren Aurrekontu Orokorra Batzordean izapidetuko da, eta izapidetze hori hasita dagoela ulertuko da Proiektua Batzorde eskudunean aurkezten denean.

Batzordeko Lehendakariak, nolana ere, Administrazio Jardunbide Arrunta arautzen duen araudia eta aurrekontuetako araudia errespetatuz, izapidetzeko egutegi bat proposatuko du eta jarriko du botaziora, eta lehentasuna izango du Udalbatzarrean eta Batzordeetan egiten diren gainerako lanekiko.

Egutegi horretan nahitaez jasota egongo da Udaleko Talde Politikoen eta atxikipenik gabeko zinegotziek Aurrekontuaren Proiektuari hamabost laneguneko gutxienezko epean Zuzenketak egiteko duten eskubidea.

### **122. artikulua.- Zuzenketak aurrekontuari.**

Zuzenketak osokoak edo partzialak izan daitezke. Berrito egiteko edo proiektukoaren testu alternatibo bat proposatzeko Aurrekontuak bueltatu daitezela eskatzen duena izango da horrenbestez osoko zuzenketa.

### **123. artikulua.- Zuzenketa partzialak.**

Zuzenketa partzialak Aurrekontuetako programa, artikulua, kontzeptu edo exekuzio-oinarriren bat kentzeko, aldatzeko edo gehitzeko egin daitezke.

Azken hiru kasuetan zuzendutakoa ordezkatzeko proposatzen den testu osoa izan beharko dute, eta testu hori zuzenketa ere jasoko da.



#### **124. artikulua.- Ordezkatzeko edo gehitzeko zuzenketak.**

Gastua gehitzea edo diru-sarrerak gutxitzea ekarriko duten ordezkatzeko edo gehitzeko zuzenketetan aurrekontuaren orekari eustea ahalbidetuko duten hori berdintzeko edo gastu alternatiboa kentzeko aurreikuspenak jasota egongo dira. Inolako zuzenketarik ez da onartuko eztabaidarako aurreikuspen hori ez baldin badu.

#### **125. artikulua.- Zuzenketak izapidetzea.**

Zuzenketak aurkeztu ondoren egingo da Batzorderako deialdia. Aurkeztu diren zuzenketa guztiak gehituko dira deialdian.

Batzordean osoko zuzenketak aztertuko dira lehendabizi. Lehendabizi bueltatzekoak, eta jarraian testu alternatibokoak. Buelatzeko osoko zuzenketa bat baino gehiago badaude, multzokatu egingo dira.

Buelatzeko osoko zuzenketa bat onesten bada, indargabetu egiten dira gainerako zuzenketak, eta proiektua bueltatu egingo da berriro egiteko.

Testu alternatiboaren osoko zuzenketa bat onesten bada, indargabetu egiten dira gainerako zuzenketak, eta aurrekontu alternatiboaren proposamena Udalbatzarrera igorriko da. Kasu horretan, Udaleko Talde Politikoei eta atxikipenik gabeko zinegotziei hamar laneguneko epea eman beharko zaie osoko zuzenketak edo zuzenketa partzialak aurkeztu ahal izateko, eta horiek Udalbatzarrean aztertuko dira.

Batzordeko kideek boto partikularra eman ahal izango dute, Araudi honetako 71. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta hori horrela izanik ere zuzenketa berriak aurkezteko aukera izango da, 72. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

#### **126. artikulua.- Eztabaida.**

Udalbatzarrean egingo den aurrekontuen eztabaida proposamengileak hasiko du aurkeztutako dokumentuaren defentsa eginez. Jarraian, boto partikularrena edo osoko zuzenketena izango da, baleude, alde edo aurka jarduteko dagozkien txandekin. Eztabaida amaitu ondoren, osoko zuzenketak bozkatuko dira, aurreko artikuluan aurreikusitako ordena berean.

Talde Politiko batek baino gehiagok eskatzen badute Aurrekontuak bueltatzea, botazio bakarra egingo da, aipatu zuzenketak multzokatu. Baina proposatzen dena testu alternatibo bat bada, osoko zuzenketa bakoitza banaka bozkatuko da.



Bueltatzeko osoko zuzenketa onesten bada, proiektua bueltatu egingo da, eta horrenbestez, baztertutzat joko da.

Testu alternatiboaren osoko zuzenketa onesten bada, hori izango da hastapenez onetsitako aurrekontua.

Osoko zuzenketarik ez balego edo horiek bozketan aurrera atera ez badira, zuzenketa partzialak aztertuko dira. Zuzenketa partzial guztiak bozkatzen direnean, Aurrekontuen Proiektua onesteari ekingo zaio eta onetsitako zuzenketa partzialen ondorioz aldatu diren programa, artikulua, kontzeptu edo exekuzio oinarrietako aldaketak gehituko zaizkio.

Aurrekontu Orokorren Proiektua hastapenez onetsi ondoren lege ezarritakoaren arabera izapidetuko da, eta hori hala izanik ere informaziorako eta alegazioak aurkezteko aurreikusi diren gutxieneko epeak luzatzea jaso ahal izango da hartutako erabakian.

### **LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. Tokiko Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia aplikatzea.**

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Tokiko Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudian jasotako xedapenak, Araudi honetan ezarritakoen ordeztatuak dira.

### **BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Ebazpenak.**

Udalbatzarreko Lehendakariak, Idazkari Nagusiak txostena egin ondoren eta Bozeramaileen Batzordeari kontsulta egin ondoren, araudi hau interpretatzeko eta aplikatzeko ebazpenak eman ahal izango ditu.

### **HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Eranskin osagarria.**

1.- Araudi honetan dokumentu bat gehituko da informazio-eranskin moduan, eta dokumentu horretan legeko xedapenetako edukia zehaztuko da honako gaiei buruz:

- Alkatearen, Udalbatzarraren eta Tokiko Gobernu Batzordearen eskumenak.
- kide anitzeko organoen deialdietako prozedurak eta baldintzak.
- zinegotzi-izaera lortzeko hautaezintasun eta bateraezintasuneko egoerak.
- Udalbatzako kideek uko egitea eta errefusatzea.
- ordainsarien erregimena.



2.- Udaleko Idazkaritza Nagusiaren erantzukizuna izango da informazio-eranskin hori eguneratua izatea, gerta daitezkeen aldaketak gehituz.

**LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Aitorpenerako inprimakiak.**

Aitorpenerako inprimakiak gehitu dira eranskin moduan, eta horietan Udalbatzako kide guztiek araudi honetako IV. kapituluko II. tituluan eskatzen diren aitorten desberdinak egingo dituzte.

**AMAIERAKO LEHEN XEDAPENA. Indargabetzea.**

Honako Araudia indarrean sartzan denean indarrean dauden maila bereko edo beheragoko arau guztiak indargabetuta geratuko dira.

**AMAIERAKO BIGARREN XEDAPENA. Indarrean sartzea.**

Araudi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen denetik hamabost egunera sartuko da indarrean.